

**Artea eta generoa: ikuspegi feministak hezkuntzan. Gida didaktiko
bat sortzen Baztan bailarako Haur Hezkuntzarako**

Gradu amaierako lana

Egilea: Recarte Barberena, Amaia

Zuzendaria: Urzain Martínez, Amaia

**“Que nada nos defina. Que nada nos sujete. Que sea la libertad nuestra propia
sustancia” Simone de Beauvoir**

LABURPENA

Gizartea aurrera eramateko daukagun hezkuntza-sistemak historian zehar emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasuna sustatu izan du, eta askotan emakumearen bazterketa eta gutxietea jasan izan da. Egoera hori aldatzen joan den arren, hezkuntzan parekotasuna lortzeko eta berdintasun egoerak bizitzeko oraindik bide luzea dago egiteko. Hau guztia aldatzeko gakoa izan daiteke hezkidetzaren delako hezkuntza mota, zeinak genero berdintasuna lantzen duen. Horregatik, lan honetan artearen alorra ikuspegi feminista batetik lantzea bilatu da, eta horretarako, generoaren eta arte- hezkuntzaren artean zubiak eraiki behar izan dira. Arte hezkuntza lantzea pertsonen garapenerako oso garrantzitsua den arren, arreta gutxi jasotzen duen alorra da, eta hori gutxi balitz, beti ikuspegi maskulinoetik landu ohi da. Horregatik ezinbestekoa da eskoletan arte feminista lantzeko baliabideak eskura egotea, eta behar hori ikusita proposamen didaktiko bat sortu da, eskolan arte feminista lantzeko baliabide bat, Haur Hezkuntzako ziklora bideratua dagoena zehazki.

Hitz gakoak: Hezkidetzaren, arte hezkuntza, proposamen didaktiko, Haur Hezkuntza

RESUMEN

El sistema educativo con el que contamos para llevar a cabo la sociedad ha fomentado históricamente la desigualdad entre mujeres y hombres, y en muchas ocasiones la exclusión y la infravaloración de la mujer ha sido evidente. A pesar de que esta situación ha ido cambiando, todavía vivimos situaciones de desigualdad y aún queda mucho camino por recorrer para lograr la paridad en la educación. La clave para cambiar esta situación puede estar en el tipo de educación que es la coeducación, que trabaja la igualdad de género. Por ello, en este proyecto se ha buscado trabajar el campo del arte desde una perspectiva feminista, para lo que ha sido necesario tender puentes entre el género y la educación artística. Aunque trabajar la educación artística es muy importante para el desarrollo de las personas, se trata de un campo poco atendido, y por si fuera poco, se suele trabajar desde el punto de vista masculino. Por eso es imprescindible disponer de recursos para trabajar el arte feminista en las escuelas, y ante esta necesidad se ha creado una propuesta didáctica, un recurso para trabajar el arte feminista en la escuela, que está orientado específicamente al ciclo de Educación Infantil.

Palabras clave: Coeducación, educación artística, propuesta didáctica, Educación Infantil

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1-2
2. JUSTIFIKAZIOA.....	3-4
3. MARKO TEORIKOA.....	5-17
3.1. Kontzeptuak argitzen.....	5-11
3.1. 1. Sexua.....	5-6
3.1.2. Generoa.....	6-7
3.1.3. Queer teoria.....	7-8
3.1.4. Feminismoa.....	8-10
3.1.5. Androzentrismoa eta misoginia.....	10-11
3.2. Artearen bilakaera hezkuntzan.....	11-14
3.3. Genero berdintasunerako bidean.....	14-17
4. UNITATE DIDAKTIKOAREN HELBURUAK.....	18
5. METODOA.....	19-21
5.1. Hipotesiak.....	19
5.2. Unitate didaktikoaren gida.....	20
5.3. Proposamenaren aurkezpena.....	20-21
6. EMAITZAK.....	22-24
6.1. Gidaren aurkezpenaren emaitzak.....	22-23
6.2. Mugak eta hobekuntza proposamenak.....	24
7. ONDORIO OROKORRAK.....	25-26
8. BIBLIOGRAFIA.....	27-29
9. ERANSKINAK.....	30-68
9.1. Marko teorikoa eraikitzeko autoreen mapa kontzeptuala.....	30
9.2. Sortutako gidaren txostena.....	31-41
9.3. Gidaren argazkiak.....	42-63
9.4. Gidaren aurkezpenaren trasnkripzioa.....	64-68

1. SARRERA

Gaur egun hezkuntza pertsonon garapenerako ezinbesteko prozesua den arren, hezkuntza sisteman askotan ez dira garapen horretan berebizikoak diren alor eta ekintza asko sustatzen. Alor horietako bat da artea, gure artean mendeak daramatzen arren, askotan arreta eskasa jasotzen duen eta beharrezko lekua eskeintzen ez zaion alorra dena. Argi dago Haur Hezkuntzako lehen ziklotik hezkuntza artistikoaren erabilera eta lanketa egotea oso garrantzitsua dela, hurrei ingurunea aztertu eta pentsatzen edo sentitzen dutena askatasunez adierazteko aukera eskeintzen dielako. Gainera, artearen historia aztertzen dugunean, gehienetan ikuspegi maskulinoetik aztertzen dugu, hau da, gizonen egindako ekarpenak hartzen ditugu kontuan eta hauen bidezko heziketa jasotzen dugu. Nolanahi ere, artea ez da gizonen ogibidea bakarrik izan, eta historian zehar emakume artista eredugarri asko egon dira. Testu liburuetan agertzen diren pertsona eredu gehiengo ere gizonenkoa da, eta historian zehar garrantzitsuak izan diren emakumeen inguruko informazio eta heziketa ugariago eskuratze aldera oraindik bidea dago egiteko.

Hezkuntzan artearen alorrak, eta bereziki emakumeen arteak daukan garrantziaren inguruan hausnartzeko Baztan Ikastolara joko da, izan ere, gizonen nahiz emakumeen hainbat artista erreferente eduki dituen bailara izateaz gain, artista hauen gaineko informazioa ez delako asko hedatu.

Lan honen bitartez lortu nahi da Baztango Ikastolan eskeintzen den hezkuntza sisteman artearen alorrari ematen zaion garrantzia eta lekua aztertzea, baita artea lantzeko prozedura eta metodologia genero ikuspegitik arakatzea ere. Horretarako, alor honen lanketa bultzatzeko proposamen bat sortuko da, arte feminista hezkuntzan nola landu adieraztea helburu izango duena.

Gaiaren inguruko egoera ezagutu eta honen inguruan hausnartzeaz gain, lanaren nondik norakoak ulertzeko beharrezkoak izango diren terminoak marko teorikoan landuko dira, arte hezkuntza eta hezkidetzaren ulertzeko baliagarriak izango diren informazio eta baliabideak eskeiniz.

Lan honen helburu nagusia zera da, Baztan Ikastolan artearen historia erakusteko modua aldatzeko beharrezkoak diren oinarriak, eskolak eskeintzen dizkigun eredu maskulinoen gain eredu femeninoak ere ikusaraziz, eta historian zehar emakumeek pairatutako bazterketa dela medio, artearen historian emakumeek izan duten garrantzia ikasleentzako baitara ekartzea. Horretarako Marián López Fernández Cao-ren *Posibilidades de ser a través del arte. Creación y equidad* bildumaz eta bi emakume artistez baliatuz Baztan Ikastolan

artearen alorra ikuspegi feminista batetik lantzeko aukera emango dien proposamen didaktikoa eskeiniko zaie, emakume artista ezberdinak ezagutzera emanaz eta hauen bidez ikasiz.

Proposamen didaktikoa 3 ataletan egingen da. Lehenik eta behin hipotesiak planteatuko dira, ikastolara joan aurretik zer den behatu nahi duguna. Ondoren, ikastolarako Haur Hezkuntzako ikasleei egokitutako gida sortuko da, bertan arte feminista lantzeko baliogarria izango zaiena. Azkenik, hipotesiak frogatzeko bidean ikastolara joko da erakundeko irakasleei elkarrizketa bat egitera eta gida aurkeztera. Elkarrizketan irakasleen ahotik hipotesi horien erantzunak lortu eta gida sortzearen ideia inguruko iritzia jasoko da. Bestalde, sortutako gidaren *feedback*-a bilatuko da eta erakundeko irakasleei gida aurkeztuko zaie. Behin gida aurkeztu eta honen inguruko iritzia jaso ostean, emaitzak aztertu, mugak eta hobekuntza proposamenak planteatu eta ondorio orokorrak aterako dira, sortutako gida baliogarria izan den hala ez, edota irakasleei erabilgarria iruditu zaien edo ez hausnartzeko.

Bukatzeko, hezkidetzeta eta hezkuntza artistikoaren ibilbide honetan jarduteko eta gaian janzteko bilatutako eta erabilitako informazioa nondik lortu den adieraziko da bibliografiaren bidez, eta lanari gehitutako eranskinak aipatuko dira, 7. APA arauak erabilia.

2. JUSTIFIKAZIOA

Haur Hezkuntzako graduan “genero” terminologia asko landu dut, eta lau urte hauetan zehar interesekoa egin zaidan esparru horretan murgiltzeko aukera izan dut. Eremu akademikotik aparte ere nire bizitza pertsonalean garrantzia daukan gaia da, egun generoen arteko eskubideetan ikus daitezkeen ezberdintasunak ezagutzea eta onartzea garrantzitsua iruditzen zaidalako. Unibertsitateko ikasketak egiten hasi nintzen arte ez nintzen generoaren eta hezkuntzaren arteko loturez ohartu, eta inoiz ez nintzen generoak hezkuntzan daukan eraginaren inguruan hausnartzera jarri. Bestalde, txikitatik artearekin harremanetan egon banaiz ere, arreta eskasa jasotzen duen alorra dela ohartu naiz, eta zein garrantzitsua den gure garapenean. Horregatik, eta gaia sakonago lantzeko aukera izateagatik “*Artea eta Generoa: ikuspegi feministak hezkuntzan*” gaia aukeratu dut nire Gradu Amaierako Lana aurrera eramateko.

Egungo gizartea aurrera eramateko hezkuntza beharrezkoa den prozesua da, eta baita behar dugun genero berdintasuna lortzeko gako garrantzitsuenetariko bat ere. Hezkuntza hainbat esparrutan eman daiteke: familian, nor bere izatez, eskolan... Eskola da hezkuntzarekin lotu ohi den esparru garrantzitsuenetariko bat, horregatik bertan ematen den hezkuntzak garrantzia handia dauka ikasleen nortasuna eraikitzerako orduan. Nire ikaskuntza prozesuan hausnartzen jarri ondoren, testu liburuek eskeintzen zituzten ereduek arreta deitu zidaten, izan ere, emakume izen gutxi aurkitzearekin edo eredu bat bera ere ageri ez denarekin egin bainuen topo. Horrez gain, testu liburuetan ageritako emakumeak pintatuta agertzen dira, eta ez artista gisa. Gainera, noizean behin aipatu egiten diren emakume artista gutxi horiek ez dira ingurukoak izaten normalean, kanpokoak baizik, eta horren harira pentsatzen jarri nintzen ea zergatik eskolan artearen alorra lantzerakoan ez dituzten inguruko erreferenteak eskaintzen.

Nik txikitan Baztan Ikastolan ikasi nuen, eta esan beharra daukat artearen alorra eskas landu nuela. Gainera artea sortzeko ohiko moduak erabiltzen ziren, hau da, papera eta pinturak erabilia gehienetan. Egundarte sortzeko dauden baliabide anitzekin iruditzen zait artea egitea paperetik at dagoela, eta hurrei sormenerako aukera eman behar diegula, ideia eta artearen esparru ezberdinak esploratu ditzaten. Horrez gain oso garrantzitsua iruditzen zait inguruko erreferenteak lantzea hezkuntzan, ez baita urrun joan behar artisten bila, bailaran bertan artista on asko ditugulako. Aipatzeko artistak dira batik bat Ana Mari Marin eta Jose Mari Apezetxea, oso ezagunak ez diren arren, bailarako artista ezagunenak direnak.

Gaiaren inguruan hausnartu ondoren konturatu nintzen artearen alorra lantzea zein garrantzitsua den, eta lanketa hori zein urria den. Artearen erabileraren ondorioz izaki bizidunok gai izan gara denboran zehar emozioak, sinismenak, beldurrak, desioak eta gauzak nola hautematen ditugun adierazteko. Azken finean, arteak ez dauka soilik eginkizun hezigarria, baizik eta sortzailea ere, ikasitakoari erantzuna emateko edo emozioak adierazteko beharrezko gailuak eskeintzen dizkigulako.

Baztan Ikastolan artearen alorra genero berdintasunean lantzeko, bertako emakume artistez baliatu beharko lirateke, hauen bitartez ezagutza jasotzeaz gain inguruko artista ez hain ezagun hauen lana gorai patuz, gizarteko hezkuntza sistemaren kiribilean erori gabe, eta kultura aniztasuna bultzatuz, historian zehar egon diren hainbat artista ezberdin eskeiniz.

Oro har, hezkuntza berdintasuna bultzatzeko bitartekari gisa ulertzen badugu, heziketa artistikoa ikasleen formazio akademikorako ezinbesteko pieza gisa ulertu beharko litzateke, eta ez soilik osagarri gisa.

3. MARKO TEORIKOA

Hezkidetzaren eta emakumearen ikusgarritasuna lortzerako bidean ibiltzen hasi nahi badugu, gai honi dagokionez non gauden jakin beharko dugu, gaiaren inguruko ezagutza jaso eta honen inguruan hausnartzeko. Hezkidetzaren ibilbide honetan topatu naiz hiztegi eta kontzeptuak landu behar nituela gaiaren jantzeko, eta, horretarako sexua, generoa, Queer Teoria, feminismoa eta androzentrismoa eta misoginia kontzeptuak miatu ondoren horiei helduko zaie. Kontzeptuak aztertu ostean arteak hezkuntzan izandako bilakaera aztertuko da, eta bukatzeko, genero berdintasunera bidean gauden egoeraren inguruan arakatuko da.

3.1. Kontzeptuak argitzen

3.1.1. Sexua

Gizakia, izaki historiko eta kulturala da. Horregatik biologiako datuek arazoaren zati bati buruzko informazioa soilik ematen dute. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezin dira ukatu. Emakumea gizona baino ahulagoa da, indar muskular gutxiago dauka, globulo gorri gutxiago eta arnasteko gaitasun eskasagoa. Horrez gain, ez du korrika hain agudo egiten, pisu gutxiago jasotzen du, ez dago ia kirolak berarekin neurtu daitekeenik; borrokan ezin da gizonarekin lehian aritu. Joera honi aldakortasuna, kontrol eza eta ahultasuna ere gehitu behar zaizkio: egitateak dira (Beauvoir, 1949).

Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegiak (2020) jakinarazten digun bezala, sexua ezaugarri biologikoen multzoarekin lotzen da, eta ezaugarri genetiko, organiko eta hormonalei dagokie bereziki, emakume eta gizonen arteko bereizketaren oinarrian dauden ezaugarriak izanik. Beraz, sexuaz ari bagara, giza-espezietan iraunkorrak diren ezaugarri biologiko batzuek ari gara, eta ez du zerikusirik ingurune sozialarekin (Carbonell, 1996).

Orain dela gutxi arte bi sexu zeudela pentsatzen zen, bakoitza bere ezaugarri fisiko, ideologiko eta kulturekin. Generoaren analisiak ikuspuntu simplista hori eten eta genero identitatea bezalako gaiak gehitu zituen. Gainera, emakume eta gizonen arteko banaketa binarioan (osagarria edo ez) enfasia jarri ordez hauen arteko harremanean jarri zuen. (Reyes, 1998). Bi kategoria zurrin hauek egotearen aurkako aipamena egin zuen Butler-ek (1990), zeinaren esanetan, binarismo horren barruan, beti kontutan eduki behar duguna da bi kategoria definitzen ditugunean, beti egongo direla kategoria hauetatik kanpo aterako diren salbuespenak, eta hori ezin dugu ukatu. Generoaren kategoria horietan, salbuespen hauek pertsona ez binarioek eta intersexualek eraikitzen dute, arau binaristarekin bat ez etortzeagatik baztertuak direnak.

Genero- identitatea era askotako gisa definitzeak aldatu egin du bi sexu eta bi genero soilik banatzearen ideia hori. Egun, gorputzen desberdintasun biologikoak eta anatomikoak naturalak direla argi dagoen arren, bakoitzak bere gorputzari buruz egiten duen interpretazioa edo autodefinizioa bultzatzen duen ideia zabaltzen hasi da. Genero-identitatearen definizioa bakoitzaren eskuetan egon behar da, ez gizartearen eta kulturaren eskuetan. Argi eduki behar da, sexua ez dela aldaezina, ezta naturala ere (Butler, 1990).

3.1.2. Generoa

Generoaren ikerketen jatorria ezagutzeko urteetan atzera egin behar da. Garai hartan Simone de Beauvoir-ek *El segundo sexo* liburua argitaratu zuen, non sexuaren eta generoaren arteko ezberdintasuna ezartzeaz gain hauen arteko desberdintasuna eztabaidatzen zuen, gizonak eta emakumeak eraikuntza kultural baten ondorio zirela azalduz. Beauvoir-ek (1949, 26. or.) dioenez, “*No se nace mujer, se llega a serlo*”.

Testuinguru sozial eta kulturalaren arabera generoa desberdina da, jendarteak pertsonen duten sexuaren arabera gaitasun, jokaera eta jarrera multzo ezberdinak ezartzen dizkielako (Carbonell, 1996). Honek, beraz, erreferentzia egiten dio gizon eta emakumeen egotzitako rolen eraikuntza sozialari eta horietatik eratortzen diren aukera eta mugei. Generoa, kultura edo jendarte batean une historikoaren arabera dela dakigun arren, etniaren, klase sozialaren, edota pertsonen horietan duten kokapenaren arabera aldatu egiten dira sexu bakoitzari esleitzen zaizkion ezaugarri psikosozial horiek (Martinez, 1999, Reizabalek aipatua, 2007). Gainera, Reizabalek (2015, 60. or.) planteatzen duen bezala, “pertsonak sortzen direnetik hasten da haien genero-sozializazio prozesua. Izan ere, sexuaren arabera tratua, mezuak, jantziak, jostailuak eta antzekoak jasotzen dituzte neska-mutilek guraso, irakasle, erakunde, komunikabide eta antzeko sozializazio-eragileengandik, hau da, haien sexuaren arabera sozializazio diferentziala jasotzen dute”.

Argi daukagu “generoa”-ren ereduak gizarte batetik bestera edo aro ezberdinetan ez direla mantentzen, aldatu egiten baitira. Hala ere, egia da badaudela iraunkorrak diren ezaugarri batzuk: gizon-emakumeen harremanei dagokienez, esaterako, mutikoen sozializazio prozesuetan, agintzeko gaitasuna sustatzen da, eta nesken sozializazioa, aldiz, menpekotasunera bideratuta egoten da (Subirats, 2007, Aristizabalek aipatua, 2011).

Generoaz hitz egiten dugunean osaera biologikoarekin lotzen dugu askotan, baina osaera biologikoa al da sexu eta genero ezberdintasuna markatzen duena? Emakume eta gizonen arteko ezberdintasun anatomikoak badaudela argi dagoen arren, ez dira garrantzitsuak sexuen arteko hierarkizazioa arrazoitzeke. Emakumea gizonezko batetik ezberdintzen duen arrazoia eboluzio funtzionalean dago, gizonezkoan lineala dena, eta

emakumezkoan aldiz konplexuagoa da. Horregatik, eboluzio funtzionaleko une oro xede biologiko horren ondorioz ezarriak daude (Beauvoir, 1949).

Emakumea historian zehar bigarren maila batera baztertua izan da, gizonaren menpe geratuz, eta emakumeari esleitzen zaizkion rolei garrantzia kendu izan zaie. Generoaren ikuspuntuaren helburuen artean emakumeekin eta emakumeetatik historiaren, gizartearen, kulturaren eta politikaren itxura berri baten eraikuntzaren parte-hartzea dago. Zalantzarik gabe, errealitatearen itxura berri hori ezagutzera emateak aukera eta arazo berriak sortzera behartzen gaitu, baita emakumeak garapen prozesuan, politikan, estatuan eta demokrazian barne hartzea ere (Arcos et al., 2007).

Emakumeek eta gizonek normalean betetzen dituzten rol sexualen ereduaren onespenez “gizonezkoen betiereko dominazioa”, “emakumeen estatus apala” edo “patriarkatu” unibertsalaren ustezko iraunkortasuna onartzera eraman gaitu. Horregatik, maskulinitatearen gaiari heltzeko, generoa eraikuntza sozial gisa ulertu behar da (Reyes, 1998). Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegiak (2020) patriarkatua honela definitzen du “gizonek familiako emakume eta haurrengan duten nagusitasunaren adierazpena eta instituzionalizazioa, gizarteko emakume guztiengana zabaltzen dena”. Beauvoir-ek (1949) dioenaren arabera, patriarkatuaren lehen denboratik gizonek bidegabeki haien baitan hartutako botereaz baliatuz menpekotasun egoeran eduki izan dituzte emakumeak. Horren ondorioz emakumeak “besteak” izenezko egoeran aurkitu izan dira, interes ekonomikoez gain asmo ontologiko eta moralei eraginez.

Oro har, generoak funts ekonomikoa dauka, eta gizakiongandik kulturalki eraikita dago. Horregatik esaten da eraikuntza soziala dela, izan ere, harritzekoa baita urteetan zehar eta gizarte patriarkatu batetik bestera estereotipoak eta rola nola aldatzen diren ikustea.

3.1.3. Queer Teoria

Queer teoriari esker generoaren alorrak izugarritzko aurrerapausoa eman duen arren, teoria honen inguruan ez gaude jantzita, eta ez zaigu gure hezkuntza prozesuan zehar teoria kritiko honi buruzko informaziorik eskaintzen. Definizio erraz eta ulergarri bat eskaintze aldera Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegiak (2020, 53. definizioa) genero- eta sexu-bitartasuna zalantzan jartzen duen teoria gisa definitzen du, sexu-identitatea, genero-identitatea eta sexu-orientazioa aurrez biologikoki determinaturik ez daudela esanez baizik eta kulturalki eta sozialki eraikiak. Teoria Judith Butlerrekin lotzen dugu, izan ere, berak sortutako *El género en disputa* izan da teoria honen obra fundatzaileetako bat, eta bertan sexua eta generoaren arteko ezberdintasuna seinalatzen du. Butler-en (1990) esanetan,

sexua naturarekiko da generoa kulturarekiko den bezala, eta biak eraikuntza sozio-kulturalak direla planteatzen du.

Feminismo mugimendua bultzatzen zuten autoreek, generoa kulturalki ezarrita zegoela kritikatzeko zuten, baina sexua, aldiz, naturala eta biologikoa zela. Bestalde, ideia hori ez jarraitu eta bai generoa eta baita sexua ere gizarteak sortutako eraikuntzak izan daitezkeela uste da, eta generoa eta sexua inguratzen duten guztia espazio, denbora eta talde zehatzetan eraikitzen dela, biologiak eraginik izan gabe (Butler, 1990).

Horregatik, queer teoriak sostengatzen du sexu biologikoa ez dela ustekabea, eta horregatik edozeinek bere identitate sexuala alda edo egokitu dezakeela, eta egin beharko zuela. Izan ere, normalizat hartzen dena da, genital femeninoekin jaiotzean, genero femeninoa esleitzen digutela, hau da, emakumezkoarekin lotzen gaituzte. Honek, aldiz, zera inplikatzeko du, emakumea izatean izaki maskulinoa izango dela honen desira objektua. Hala ere, logika honi aurka eginez aurretik azaldutako elementu horietako bat bera ere ez dago behartuta modu horretan besteekin bat etortzera, hau da, elkarrekin lotzen diren elementu horiek gizartean indarrean dauden legeak jarraituz eraikiak dira (Butler, 1990).

Bestalde, Butlerren *El género en disputa* obra, egungo generoaren azterlanen ezaugarritzat hartzeaz gain, oraingo teoria feminista ulertzeko ezinbersteko liburukia ere bada.

3.1.4. Feminismoa

Feminismoa egun indarrean dagoen teoria eta mugimendua da, gure gizartean beharrezkoa dena. Azken urte hauetan indar handia hartu duen arren eta denen ahotan egon arren, ez dago honen inguruko definizio zehatzik. Orain arte modu askotara definitu izan da feminismoa, eta bakoitzak bere burua feministatzat hartzeko ezaugarri, ideia edo rol ezberdinak jarraituko ditu, izan ere, pertsona askorentzat feminista izatea zer den pentsatzen badute, bakoitzak bere iritzia izango du, askotan desberdina izan daitekeena. Reizabal-ek (2015, 29. or), dioenez “matxismoa, sexismoa, androzentrismoa, misoginia eta antzekoak desagerrarazi eta gizonen eta emakumeen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzea helburu duen mugimendu sozial, filosofiko eta politiko gisa defini daiteke feminismoa. Emakumeekin erlazionatzen den arren, emakume guztiak ez dira feministak eta badira feministak diren gizon asko ere”.

Idea hori haintzat hartuz, alor ezberdinak biltzen eta aztertzen dituen mugimendua da beraz, zeinetan emakumeen eta gizonen eskubide berdintasuna ezartzea helburu duen. Horregatik mugimendu feminista, egungo gizarte patriarkatuan gizonek dauzkaten aukera

eta pribilegioak aztertuz, emakumeei ere aukera eta pribilegio berak eskeintzean datza, sexua kontuan hartu gabe. Beauvoir-ek (1949, 48. or.) aipatu bezala, “las mujeres son aquellos seres humanos que reciben arbitrariamente el nombre de *mujer*”.

XX. mendeko pentsalari garrantzitsuenetako bat da Simone de Beauvoir, filosofa eta idazle feminista izandakoa. Garai hartan beretzat emakumea izatea zer zen pentsatzen jarrita idatzi zuen *El segundo sexo* liburua. Bertan emakumeen identitatea eta desberdintasun sexualaren gaiak jorratzen ditu ikuspegi soziologiko, psikologiko, historiko, antropologiko eta biologikotik. Lan honek feminismoari egin dion ekarpena agerikoa da, berdintasuneko feminismoa deituriko korrontearen oinarritzko obra izan zelako. Beauvoir-ek (d.g., Bessis-ek aipatua, 2020) esan zuenez, zalantza asko izan zituen emakumearen inguruko liburu bat idatzi aurretik, gaia haserregarria baita, bereziki emakumeentzat.

Feminismoak indarra hartu duen arren, eta horri esker genero-berdintasunerako bidean aurrerapausoak emanda ere, ez du orain arte jasan den patriarkatuaren ideia alde batera uztea lortu, egunero gizarteko hainbat emakumek egiaztatzen duten bezala. Poliki-poliki emakumeak bigarren mailako sexua izatetik askatzen joan dira, eta bakoitzaren ongizatea eta interesak defendatzen ikasi dute. Berdintasun hori lortzeko bi sexuak ezberdinak izanda ere eskubideetan berdinak izatea eskatzen dute, eta jarrera edota aukera berdinak eskaintzea. Historian zehar emakumeek botorako eskubidea lortzeaz gain hezkuntzara sartzeko aukera ere lortu dute, baina oraindik berdintasun laborala lortzeko edo indarkeria pairatzen uzteko borrokak jarraitzen du. Argi dago desberdintasun laborala oraindik badagoela, nahikoa da hainbat enpresetako goi karguetan dauden langileak behatzea. Gainera, orain oso ohikoa ez den arren, emakume askoren lana, etxeko lanetan soilik aritzea izan da (Hik Hasi, 2017). Beauvoir-ek (1949) aipatutako ideiarekin bat eginda, emakume batentzat ahalegina suposatzen du lanbide bat kontziliatzea, lanbide horrek suposatuko duena zera baita; ordu askoz etxetik kanpo egotea eta indarrak xahutzeaz gain, seme-alabez arduratu behar izatea ere bidenabar.

Askok pentsatzen dute feminista izatea munduarekin haserre egotea eta gizonak plazer hutsez gorrotatzea dela, aldiz, Alcaide-k (2010) dioenarekin bat eginda, pentsamendu baztertzaille hori alde batera utzi eta uler dezakegu generoen arteko aukera eta eskubide berdintasunen alde borrokatzen duen pertsona dela. Beraz, feminismoa askok hala pentsatuta ere ez da matxismoaren kontrako ideologia. Feminismoa berdintasunaren teoria da, emakumeak zein gizonak eskubideetan eta askatasunean berdinak garela defendatzen duena, eta matxismoa, aldiz, ezberdintasunean oinarritzen da. Oro har, emakumea izateagatik sufritzen duten zapalkuntzaz kontzientzia hartzen duten eta horiei aurre egiteko antolatzen diren emakumeek osatzen duten teoria eta praktika politikoa da (Enjambre

Feminista, 2014). Horregatik pentsa dezakegu, feminismoa ez dela pertsona batzuen kontua, baizik eta mugimendu internazional, zabal eta konplexua, historian zehar kokagune ezberdinak hartu dituen (Alcaide, 2010).

Argi dakigu emakumeen eskubide berdintasuna lortzeko bidea aspaldi hasi zela egiten. Gizartea boterea eskuratzeko borrokan dauden gizon taldez osatuta egon da betidanik, eta hauek haien artean boterea eduki, konpartitu eta elkarren artean babesten dira. Hori da gizartearen zentroa, eta emakumeak sateliteak bezala periferian daude, bakoitza bere gizonaren eta familiaren euskarri. Eskema horiek aldatu ezean isolatuak egonen dira emakumeak, inpotentziaz beteta. Horregatik esaten da kulturaren esparruan eta beste hainbatetan egin behar dena guztiok elkartzea dela, bakoitzaren interesak, ez erabat premialak, baizik eta berdintasunarekin lotutako interesak haintzat hartuz, gizartearentzat onuragarriak izan daitezkeenak (Clásicas y Modernas, 2020, 36. minutua).

3.1.5. Androzentrismoa eta misoginia

Genero ikuspuntuan ikusi dugun bezala, emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien estereotipo eta rolak indarrean daude oraindik. Egun pertsona bakoitzak genero ikuspuntutik at izateko era eta jokatzeko modu desberdina duela eta horren ondorioz aniztasuna eta dibertsitatea badagoela argi dagoen arren, daukagun gizarte patriarkatuak etengabe androzentrismo ikuspuntua bultzatzen du.

Sau-k (1990), androzentrismoa gizonezkoa unibertsoaren erdigune eta gauza guztien neurri bezala definitzen du. Ikasketa, ikerketa edo azterketaren fokapena gizonezkoen ikuspuntutik bakarrik burutzea eta emaitzak pertsona guztientzat -gizon zein emakumeentzat-, ontzat ematea. Alde bakarreko fokapen hau sistematikoki erabili dute zientzialariek eta zientziaren adar guztiak desitxuratu ditu. Oro har, gizona ardatz duen pentsaera eta jokabidea da, gizona erdigunean jartzen duena, bizitzaren alderdi guztietan, eta emakumeak eta haien esperientziak bazterrean eta ikusezin uzten dituen (Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegia, 2020, 21. definizioa).

Mundu hau beti gizonena izan da: hori azaltzeko azaleratutako arrazoi bakar bat ere ez da nahikoa. Soilik datu prehistorikoak eta etnografikoak filosofia existentzialistaren bidez berrikusiz ulertu dezakegu sexuen bidezko hierarkia nola ezarria izan den. Iada azaldu dugu bi giza kategoriek aurre egiten dutenean, bakoitzak bere burujabetza bestearen gainetik inposatu nahi duela; biak aldarrikapen hau mantentzeko egoeran badaude, haien artean, etsaitasunez edo laguntasunez elkarrekikotasun erlazioa sortzen da, tentsioz betiere; bietako batek aurrea hartu, bestearen aurretik jarri eta zapalkuntza egoeran mantentzen saiatzen bada (Beauvoir, 1949).

Beauvoir-ek (1949) aipatu bezala, emakumearen egoera zehatza ez da gizartean nagusitzen den erregimen motaren arabera kaltetua izan; erregimena patrilineala, matrilineala, bilaterala edo desberdindu gabekoa izan, beti dago gizonen babespean. Horregatik, patriarkatuaren garaipena ez da ustekabekoa izan. Gizadiaren sorreratik, abantaila biologikoak pertsona boteretsu gisa indartzeko baimena eman die, eta abantaila honi ez diote inoiz uko egin, emakumea botere ezegonkor bat soilik edukitzera kondenatuz, izan ere, inoiz ez du bere helmuga aukeratzeko.

Misoginia terminoak, bestalde, emakumeenganako eta emakumeekin erlazionatutako guztiarekiko gorroto, ezinikusi eta gutxiespenari egiten dio erreferentzia. Terminoa greziera hizkuntzako “miseo” eta “gyne” hitzez eratua dago, gorrotoa eta emakumea esanahiak izanda, hurrenez hurren (Correa, 2021). Beraz, emakumeekiko gorroto gisa definitzen da, eta gizonezkoen mendeko izakiak direla ulertzen da, mundura gaizkia ekartzearen errudunak (Alfaya eta Villaverde, 2009). Ideia hau antzinako munduan oso errotuta egon zen, eta maila artistikoan ezin hobeki ikusi dezakegu, grekoen estatu maskulino eta femeninoetan erreparatzen badugu. Adibide bat jartzeko, *Hera de Samos* deituriko eskulturari, emakumeak masa zilindriko moduan daude errepresentatuta, gizonei biluzik eta bularreko eta muskuluetako trazuak agerian uzten zaizkien bitartean (Alfaya eta Villaverde, 2009). Askok, emakumeen aurkako gorrotoa, mespretxua edo aurreiritzia gisa definitzen dute, eta era askotan agertu daiteke gainera: gizarte-bazterketa, sexu- bereizkeria, etsaitasuna, androzentrismoa, patriarkatua, gizonen pribilegioa, emakumeen kosifikazioa eta abar (Feminismoa eta berdintasuna hiztegia, 2020).

Denboran zehar atzerapen kultural gisa kontsideratu izan da, gizonezkoen nagusitzean oinarritu delarik. Bertan emakumeen rola da soilik etxeko lanetan eta ugalketa prozesuan jardutea zen. Misoginoek uste dute gizonezkoa genero femeninotik guztiz askatu behar dela. Gainera, teoria feministak razismo gisako ideologia politiko gisatzat hartzen du, emakumeek gizonengandik pairatutako mendekotasuna erreproduzitu eta justifikatzeko sortua dena (Correa, 2021).

3.2. Artearen bilakaera hezkuntzan

Artea, gure eguneroko bizitzan betidanik presente eduki izan dugun alorra da, eta honen bitartez bizitzaren inguruko ezagutza eta honi aurre egiteko gaitasunak lortzen ditugu. Lev Tolstoiak (2013) dioten bezala, poema eta nobeletan irakurtzen duguna, antzerki eta kontzertuetan entzuten duguna edota erakusketa, eraikin eta estatuetan ikusten duguna soilik artetzat hartzera ohitu gara, aldiz, hori guztia artearen zati txiki bat baino ez da. Gure bizitza osoa era askotariko artelanez beteta dago, sehaska kanta, txantxa, mimika, etxeen

apaindura edota arropatik hasi eta zerbitzu erlijioso prozesioetaraino doana. Aipatutako hori guztia ere artea da. Guzti honek baieztatzen digu artea zabala bada ere, guk arteari mugak jartzen dizkiogula, izan ere, egunerokotasunean arteaz inguratuta bizi baikara, eta ez gara konturatzen ere, soilik arte ona onartzen baitugu artetzat.

Askok huts egiten dute arte ona sailkatzen, izan ere, zer da arte ona?, Norek aukeratzen du zein den arte ona eta zein ez? Jada argi daukagu artea pertsona bakoitzarentzat desberdina dela eta bakoitzak kontsideratzen duela beretzat artea zer den. Hala ere, artearen definizioa zabala eta eztabaidagarria dela ikasi dugun arren oraindik sailkapenak egiten ditugu.

Artearen edertasuna aipatzea ere garrantzitsua da. Jakin badakigu, gizarteak alor guztietan esku- hartzen duela, baita arte eta kultura alorrean ere. Horregatik berriro ere emakumearen irudia bigarren mailan jartzen da. Ikusi besterik ez da egin behar historian zehar artea ederra izan beharreko ideia horrek zer dakarren. Aipatutako edertasunaren ideia hori emakumearekin lotzen da. Arte ia guztia gizonen lana izango da, baina artelanetako errepresentazioetan emakumeak agertuko dira. Horrek zer pentsa badauka. Bestalde, edertasun hori abiapuntutzat hartuz, artea estereotipoz beteta aurkituko dugu, eta argi eduki behar dugu arteak ez dituela aurreiritziak izaten amaituko duten estereotipoak helarazi behar. Gizaki bakoitzak sentitzen duenarekiko adierazpena eta errespetuan lagundu behar du, izaki bakoitza desberdina izanda ere eskubideetan berdinak baikara (Majo Machado, 2020, 4m17s).

Gaur egun generoa kontuan hartu gabe eta emakumeak ikusarazte aldera museo askotan erakusketa ezberdinak eskeintzen hasi dira, emakume artistei eta haien obrei balioa emate aldera. Adibide bat jartzearren, 2022an Donostian egindako Baginen Bagara erakusketan emakume artistak ikusaraztearekin lan egin zuten.

Artearen ideia oso zabala da, beraz. Frida Kalho, Guerrilla Girls-eko taldekide batek jakitera ematen digu beretzat artea probetxu edo ondare bat dela, inbertsio bat. Bere ustetan objektu baliagarria da, momentu bakar batean leku bakar batean egon daitekeena, eta erosi, saldu, utzi edo lekualdatu daitekeena, hau da, arrakastaren sinbolo bilakatu dena (Rompeviento TV, 2014, 18m11s).

Gaur egun arte, emakume artista garrantzitsuen zerrenda luzea da, baina artearen historiaren baitan alde batera utzia izan da, eta ez dira ez ezagutaraziak ezta baloratuak izan. Emakumeek egindako margolan asko gizonen artearekin ezagutuak dira. Horrek erakusten digu, emakume eta gizonaren artearen artean ez dagoela desberdintasunik,

emakumeen artelanak ere gizonezkoen artelan gisa onartu izan baitira. Bestalde, egilea emakumea zela egiaztatzean, lanaren balio ekonomikoa eta sinbolikoa asko jaisten zen.

Ideia hori haintzat hartuz, Linda Nochlin idazle eta arte historialariak 1971. urtean *¿Por qué no ha habido grandes mujeres artistas?* entsaioa idatzi zuen. Bertan emakumeek artean arrakasta lortzea galarazi duten oztopoak miatzen ditu, artearen alorra eraikitzeko baldintza sozial eta historikoak aztertzeaz gain emakume artisten ekoizpena eta garapena mugatu zuten praktika artistikoen sarbide aukera ere arakaturik (Nochlin, 1971).

Pollock-ek (1988) dioenarekin bat eginda, inoiz ez dugu gizoneko artisten edo gizonen artearen inguruan hitz egiten, soilik artearen edo artisten inguruan hitz egiten dugu. Ideia horretatik abiatuta ulertu dezakegu emakumea “bestea” izatearen ideari egiten zaion kritika. Emakumea “bestea” izate horrek suposatzen duena da, emakumearen arte gisa zehaztu behar dugula, artea eta artista hitza soilik gizonezkoekin lotzen dugulako. Hori gizartearentzat garrantzitsua izan daiteke berriro ere, emakumeari bigarren mailako estatusa eskeintzeko.

Argi dakigu gaur egun eta betidanik artean eta beste hainbat alorretan egoerak zapaltzaileak izan direla zenbait emakumerentzat, txuriak, erdi-mailako klasekoak eta bereziki gizonak jaiotzeko zortea izan ez dutenentzat bereziki. Ballarín-ek (2001) jakinarazten duenez, gizartea etnia, klase soziala edo erlijioaren ondorioz banatua egoteaz gain sexuaren eraginez ere banatua egon izan da beti, eta orain dela gutxi arte historialariek ideia horri ez zioten jaramonik egiten. Horregatik emakumeak baztertuak izan dira historian zehar, historian ekarpenik egin ez dutela pentsatzen baitute historialari horiek. Nochlinek (1971) ez du emakumeen gainean jartzen errua, baizik eta indarrean dauden instituzioetan eta hezkuntzan. Esaten duenez, hezkuntza jaiotzen garen momentutik ematen da, esanahiez betetako ikur, zeinu eta seinaleetan. Beraz, artean emakumearen eta gizonezkoaren berdintasuna bultzatzen hasteko hezkuntza da bitartekari nagusietariko bat. Tamalez, hezkuntza prozesuan, oso gutxi lantzen den alorra da artea, gure garapenerako eta biziraupenerako ezinbesteko prozesua izanda ere. Gainera, eskoletan eskeintzen den hezkuntza estrukturatua egoteaz gain mugatuta dago. Ideia eta balore batzuen inguruan diseinatuta daude eta hezkuntza-sistema gehienak garaiaren, denboraren edota kulturaren arabera ezberdinak dira. Hala, hezkuntzaren ideia eta balore mugatu hauetatik abiatuta, azken garaiotan asko dira hezkuntza artistikoari hezkuntzan behar duen garrantzia ematearen aldeko apustua egin dutenak, izan ere, hezkuntza artistikoari ez baitaio balorea ematen, eta gure garapenerako ezinbestekoa da.

Hezkuntza artistikoak aukera ematen die haurrei beraien burua hobe ezagutzeko, barruko sentimenduak adierazteko eta haien imaginazioa eta sormena irudikatzeke. Artea hezkuntzan, bestalde, modu askotara gozatu daiteke, pinturan, antzerkian, marrazkian, dantzan edota kantuan ere. Haurrak pentsaera sortzailea izan dezan laguntzen du, eta hori baliagarria izango zaio sortuko zaizkion arazoei aurre egiterako orduan (Universidad Europea [UE], 2022). Argi dago hezkuntzan minimo kulturalak falta direla, eta pertsonak ezin direla 3 edo 6 urtetatik 16 urtera arte arteko klase bat bera ere gabe utzi. Haurrek gero eta azkarrago sortzeaz uzten dute, eta askotan haur txikiei marrazteko eskatzen diezunean, eta ez badiezu esaten zer marraztu, ez dakitela diote (Fundación General de la Universidad de Málaga, 2020, 1h17s).

Bestalde, López Fernandez Cao-k (2000) baieztatzen duen bezala, eskoletan eta, orokorrean arte fakultate guztietan ikasten den artearen historia, irudi femeninoz josita dago, aldiz, ez da horregatik emakumeen sorkuntzatzat jotzen. Honek agerian uzten du emakumeek ere artean eragina izan dutela eta, gizonezkoak baino gutxiago izanda ere emakume artistak egon direla, emakumeek artean formatzeko eta zaletasun hortan jarduteko oztopoak eduki badituzte ere.

3.3. Genero berdintasunerako bidean

Genero berdintasunerako bidean mendeetan zehar aurrerapauso asko egon dira gizarteko esparru guztietan, aldiz, Amelia Barquín-ek (2017) argi adierazten duen bezala:

Legez, hitzez eta teorian berdintasunean bizi gara. Baina mezuak, errealitatea eta egunerokotasuna bestelakoa da: sexu-genero sistema baten arabera bizi gara. Gurea sedukzio patriarkatua da, eta agindu horren arabera mezuak jasotzen ditugu etengabe, gure nortasunean eragiteraino. Gizartea ez da parekidea; familiak ez gara hezkidetzailleak, hedabideek eta kultur produktuek zer nolako mezuak ematen dizkiete neskei eta nolakoak mutileri? Jasotzen ditugun mezuen bidez, familian, lagun artean, komunikabideetan, kalean... etengabe ari gara gure nortasuna eraikitzen, eta pertsonak generoaren arabera sailkatzen ari dira etengabe. (12.or.)

Genero berdintasuna lortzeko, hezkidetzaren beharrezkoa da, eta hori zer den jakiteko, gaian aditua izandako Mari Jose Urruzolaren (2020) definizioa gogoratuko dugu. Berak zionez, hezkidetzaren baitan neska zein mutilak genero maskulino eta femeninotik aske hezi behar dira, bakoitzaren indibidualtasunaren garapena sustatuz eta gizarte sexista batek eskatzen dizkien rola kontuan hartu gabe. Hala ere, berdintasunean oinarritutako hezkuntza ezinbesteko prozesua dela dakigun arren, Elizondoko Haur Eskolako zuzendari den Kristina

Goñirekin (2020) bat eginda, zainketaren arloan murgiltzen garenok ez dugu ia errekonozimendurik gizarte honetan, eta askotan gutxiagokotzat hartzen gaituzte. Hori harrigarria izan daiteke, izan ere, bizi honen oinarria da zaintza, denok beharrezkoa duguna. Hala ere, zaintzaren arloan murgildutako pertsoneri ez zaie balorerik ematen eta ikusezinak dira gizartearentzat.

Egiaz, hezkuntzaren eta ingurunearen esku-hartzea sekulakoa da pertsonon izateko eran (Beauvoir, 1949). Gainera, haurrak txiki-txikitatik ikasi eta eraikitzen ditu bere izaera, jokabide edota bizi-itxaropenak. Ideia hori jakinda, argi dago haiek jasotzen duten hezkuntza eta bertan ematen zaizkien mezuak sexistak badira, estereotipoek mugatuko dutela bere garapena, eta ez diotela lagunduko berdintasunean hezten eta bere bizi proiektua berdintasunean eraikitzen (Skolae, 2019). Skolaek egindako adierazpen honekin ulertu dezakegu neskei eta mutileri txiki-txikitatik aukera berdinak eskeintzea eta berdintasunean heztearen zein garrantzitsua den etorkizunean gizarte parekide eta justu bat lortzeko bidean. Horren harira, emakumearen ikusgaitasuna sustatzea hezkuntzan ezinbesteko tresna da gaur egun. Feminismoa eta berdintasuna hiztegiak (2020, 32. definizioa) esaterako, emakumeen ikusgaitasuna emakumeen bizipenak eta emakumeek iraganean nahiz gaur egun gizateria osoari egindako ekarpenak argitara emateko prozesua dela dio.

2015. urtean, Baztan bailarako emakume eta gizonen arteko desberdintasun egoera abiapuntutzat hartuz, eta egoera honi aurre egiteko asmoz Baztango emakumeen eta gizonen arteko I. Berdintasun Plana aurrera eramanean zen, 2015etik 2018ra jorratu zena. Bertan, emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna lortzeko helburuak nahiz ekintzak biltzen dira. Berdintasunaren gaia jorrazteko interesgarriak diren eta jakinaren gainean egotea garrantzitsua den hainbat terminologia eta gai lantzen ditu, hala nola, sexu-genero sistema, berdintasuna, emakumearen ahalduntzea eta parte hartzea, eta arloak esku-hartzeko eremu funtzionalak direla eta 6 eremuz osatuta dago berdintasun plan hori. Eremu horietako bat Hezkuntza eta gazteria dela eta, hezkidetzaren arloan dihardute. Atal hori azaltzeko, Baztan bailaran dauden 15 ikastetxez baliatu ziren; 4 elizondon kokatuta, eta 11 inguruko herrietan (Baztango emakumeen eta gizonen arteko I. berdintasun plana, 2015).

Bestalde, gorago aipatu dugun Skolae programa ezagutzea garrantzitsua da. Programa hau hezkidetzarako bidean eta hezkuntzan genero berdintasuna bultzatzearen alde Nafarroan sortutako programa da, 2017-2018 ikasturtean hasi eta 4 urtetan Nafarroako 400 ikastetxe baino gehiagotan derrigorrez ezartzea lortu nahi izan dena. Prozesu eta konpromiso bat da, hau da, hezkidetzaren ibilbide bat, ekintza-plan eta prestakuntza-plan bat. Bi helburu dauzka: tokiko eragile askotarikoak koordinatzeko konpromisoa batetik, hazi eta

ikasgelatik harago joan dadin, eta, bestea, hezkindetza-balioetan oinarritutako inguruneak sortzen laguntzea. Helburu hauek aurrera eramateko, programak proposatzen duen ibilbidean adin talde ezberdinak eta ikasketa multzoak biltzen ditu, adin bakoitzarentzat egokienak izango diren eduki eta esperientziez baliatuz (Skolae, 2019).

Egun nazioarteko hainbat erakundek esateaz gain (Osasunaren Mundu Erakundeak eta Save the Children erakundeak, esaterako), sexualitateari buruz egindako zenbait azterketa zientifikok argi uzten dute heziketa afektibo-sexuala haurtzarotik lantzearen garrantzia, pertsonen osasunean, ongizatean edota garapen pertsonal zein sozialean daukan eragina dela eta. Horrela, heziketa afektibo-sexuala lantzeak gazteei askatasunez bizitzen eta nahi duten bezalakoak izateko aukera emango die, eta abusurik, sufrimendurik eta indarkeriarik gabeko harremanak sortzen lagunduko die, berdintasuna eta askatasuna oinarri dutenak (Skolae, 2019). Horrez gain, sexualitatea gizakiaren funtsezko alderdi gisa definitzen da, eta bizitza osoan presente dago. Gaia handia eta zabala denez, honen barruan daude sexua, genero-identitateak eta -rolak, gozamina, erotismoa, intimitatea, ugaleta eta sexu-orientazioa ere. Gainera, sexualitatea pentsamendu, fantasia, desira, ideia, jarrera, balio, jokabide, praktika, rol eta pertsonen arteko harremanen bidez bizi eta adierazten da (Osasunaren Munduko Erakundea [OME], 2006, OME-k aipatua, 2018).

Marián López Fernández Cao erreferentea ere aipatzea garrantzitsua iruditzen zait. López Fernández Cao, irakaslea, arte-hezkuntzan katedratikoa eta ikerlaria izateaz gain SEA-ko (Sociedad para la Educación Artística) lehendakaria ere bada. Bere lanetan hainbat gai landu eta ikertu baditu ere, arte hezkuntzan, berdintasunaren alde egindako ekarpenetatik ezaguna da hein handi batean. Beretzat, hezitzea askatasunarekin lotuta dago. Zainketa modua da, eta zaintzen dugun pertsona era seguruan baino aske garatzen utzi behar dugu, autonomia izaten baina besteen erantzule (López Fernández Cao, 2009).

Aipatutako egile honek hezkuntza artistikoan eskaintzen diren genero desorekak aztertzeaz gain, hezkuntza sisteman arteari eskaintzen zaion arreta eskasa ere aztertu du. Ideia horretatik abiatuta *Posibilidades de ser a través del arte. Creación y equidad* deitutako hezkuntza-proposamena sortu du, zeinak modu zehatz eta erakargarri batean, eskolan artea beste modu batzuetara lantzeko ahaleginak, helburuak eta proposamenak eskeintzen ditu, 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzat bideratua.

Bilduma hau osatzeko, hezkuntza artistikoan konprometituta zeuden irakasle batzuk elkartu ziren. Egile honek dioenagatik, aspalditik irakasleak konturatu ziren egungo irakaskuntzan zerbaitek ez ziela betetzen. Alde batetik, nekatuta zeuden beti datak eta besteen obrak buruz ikasten dituen artearen historiaren inguruan lanean aritzen, norbanako

sortzailearen irudia ere zalantzan jarri gabe. Eskolan lantzen den artearen historia horrek emakumeak, talde ez okzidentalak eta herri-klaseak baztertzen ditu, eta sortzailearen irudia hartzaile den pertsonatik aldentzen du.

Bilduma hau osatzeko hezkuntzaren, berdintasunaren eta sorkuntzaren inguruan azterketa sakona egiteaz gain, bertan eskeintzen diren hainbat autoreren gaineko lanketa ere egin dute, baita garatzen zihoazen proiektuak eskoletan probatu ere, eraginkortasuna ikusteko. Proposamen didaktikoa guztira 13 gidaz osatuta dago, eta López Fernández Cao-k beste 6 autorerekin batera sortu zuen.

Lehenengo gidak, bildumaren helburuak azaltzeaz gain, proposamena hezkuntza artistikoaren inguruan izatearen arrazoiak ematen ditu: artea eta hezkuntza zergatik diren garrantzitsuak, edota hezkuntza artistikoaren helburuak eta onurak. Hurrengo 12 gidetako bakoitzak, aldiz, artista bat edo biren informazioa eskeintzen du, horregatik, gida bakoitzaren proposamena gizonezko edo emakumezko artista baten edo batzuen obraren analisitik abiatuko da. Denetara, 13 emakumezko artista ageri dira, gizonezkoak diren 2 artistez gain. Honek baieztatzen digu emakumezko artisten lanak berreskuratu eta haiek ikusarazi nahi izan dutela, emakumezkoak diren hainbat erreferente proposatuz.

Egiturari dagokionez, gida guztietan jarraitzen den eredua da: aukeratutako artista zergatik aukeratu den eta hezkuntzari zer ekarpen egin ahal dion, artisten biografiak, bakoitzaren obra ulertzeko garrantzitsuak izan daitezkeen alderdiak nabarmentzea, orientabide metodologikoak eta helburu didaktikoak adin bakoitzarentzat egokiagoa izango den hausnarketa eta sormenaren lana era aproposagoan bideratzeko, ideia horien ilustrazioa gelan landutako adibide batzuekin. Horrez gain lana egiteko beste ideia posibleen eskaintza eta informazioa zabaltzeko balio duten erreferentzia bibliografikoak ere eskeintzen dira.

4. UNITATE DIDAKTIKOAREN HELBURUAK

Genero berdintasuna lortzeko eraikitzen daramagun bidean, hezkidetza lantzea oso garrantzitsua iruditzen zait. Hezkidetza lantzeko eskoletan proposamenak eskaini eta praktikan jarri behar dira hezkuntza-sistema parekidea lortu nahi badugu. Bestalde, genero berdintasuna lantzeaz gain, alor ezberdinen lanketa ere bultzatu behar da eskolan, badakigunez sistematikoki ezarrita dauden gaiak soilik lantzen baitira, eta gure garapenerako garrantzitsuak diren beste alor batzuk (arte, esaterako) lantzen hasi nahi badugu, bide handia dago oraindik egiteko.

Horregatik nire helburua eskolan hezkidetza eta artea landuko duen proposamen bat gauzatzea eta Baztango Ikastolako irakasleei proposamen hau aurkeztea da. Horretarako generoaren eta berdintasunaren baitako hainbat kontzeptu ere lantzeko aukera egongo da, hezkidetza kontzeptuarekin erlazio zuzena dutenak. Horrez gain, Marián López Fernández Cao-ren *Posibilidades de ser a través del arte* hezkuntza proposamena ezagutzera eman nahi da, artea eta generoaren lanketarako erabilgarria eta egokia baita.

Bestalde, proposamen honetan eskeintzen diren erreferenteen hautaketa ere ez da edonolakoa. Hautatutako erreferenteekin, historian emakume artistak egon direla eta badaudela baieztatu nahi da, eta hauen ikusgarritasuna bultzatu. Gainera, inguruko margolariak ezagutzea eta erreferente gisa azaltzea garrantzitsua da, eskoletan inguruko margolarien erreferentziak ere eskeintzeko eta bertako kultura bultzatzeko.

5. METODOA

Proposatu dugun bigarren atal honetan aurrera eramango da unitate didaktikoa sortzea. Horretarako, marko teorikoa erreferentzia gisa hartuz, Marián López Fernández Cao-ren *Posibilidades de ser a traves del arte* bilduma oinarri hartu dut bildumaren 14. gida bat sortzeko. Unitate didaktikoa Baztan Ikastola erakundeari zuzendua eta egokitua dago, beraz, bertako irakasleei edota langileei zuzendua dago proposamena.

Metodoa 2 fasetan gauzatu da. Lehenik eta behin, lanaren norabidea eta irakasleen interesa jakiteko Baztan Ikastolako Haur Hezkuntzako irakasleekin kontaktatu da, nire egoera eta proposamenaren ideia aipatzeko eta proposamenaren aurkezpenean interesatuak egongo ziren hala ez jakiteko. Behin nire proposamenarekiko interesa adierazita hipotesiak planteatu eta gida sortzeari ekin zaio. Azkenik, gida sortu ostean irakasleekin harremanetan jarri eta proposamena aurkeztu da. Proposamenaren aurkezpena ere bi atal ezberdinetan eman da: lehenik eta behin, irakasleei gaiaren inguruan galdera batzuk egin zaizkie eta, bigarrenik, gida proposatu eta honen *feedback*-a jaso da, lortutako emaitzekin ondorio orokorrak planteatzeko.

Bestalde, *feedback*-a jaso ostean lortutako emaitzak eta ondorioak baliogarriak izan dira hobekuntza proposamenak planteatzerako orduan.

5.1. Hipotesiak

Proposamen honen bitartez, Baztango Ikastolan artearen ikuspegi feministari ematen zaion garrantzia aztertu nahi izan da, eta hipotesi garrantzitsuena honako hau da, Baztango Ikastolan arte feministari nolako lekua ematen zaio hezkuntza prozesuan?

Hipotesi orokor horretatik abiatuta, edukiak ikuspegi feminista batetik lantzen ari diren edota zein baliabide erabiltzen dituzten behatu nahi da, arteak lehenengo urteetatik hezkuntzan duen garrantzia dakigularik. Horrez gain, hezkidetza eta hezkuntza artistikoaren baitan marko teorikoan aipatutako kontzeptuak lantzen dituzten hala ez eta nola lantzen dituzten behatuko da, hezkuntzaren barruan arteak eta bereziki genero berdintasunak duen garrantziaren berri eman dugularik.

Hipotesi hauek planteatu ondorengo urratsa, hauek ebidentziekin erantzutea izan da. Horretarako, unitate didaktikoa sortu baino lehen ikastolako irakasleekin harremanetan jarri eta nire proposamenaren ideien inguruan jakinarazi da, aurkezpena entzuteko interesa izango luketeen galdetzeko.

5.2. Unitate didaktikoaren gida

Aipatutako proposamen egokia sortzeko, hasi baino lehen gaiari buruz asko irakurtzea izan da gakoa. Marko teorikoaren garapenari esker, gaian aditua ez izatetik proposamen hau aurrera ateratzeko informazio nahiko jasotzera eta ezagutzera pasa naiz. Informazio anitza biltze horretan topatu naiz Marián López Fernández Cao-rekin, eta nire proposamena aurrera eramateko funtsezkoa izan da, hezkuntza esparruan arte- hezkuntza eta hezkidetzaren lantzearen aldeko apustua egiten duelako.

Behin lanarekin hasteko López Fernández Cao-ren bildumako bi gida irakurri ditut, lanerako lagungarriak izan zaizkidanak. Lehenengoa *Principios* gida, lagungarriena izan zaidana. Bildumaren lehenengo gida honek ekitatea, justizia, besteekin elkar ulertzea edota bizitzako arazoaren aurrean jarrera sortzailea bilatzeaz arduratzen den hezkuntza artistikoa batek izan behar duenari buruz hainbat printzipio edo oinarri eskaintzen dizkigu. Gainera, gidaren ideia nagusienak honakoak dira: artearen historia berrikustearen beharra jakitera ematea eta emakumeen papera berreskuratuz honen irakurketa berriak eskaintzea.

Ondoren bildumako beste gida bat irakurri dut, *Imaginarse el mundo. Hildegarda de Bingen eta Ende* izenekoak. Gida hau irakurtzearen arrazoia bi autore ezberdinen arteko erlazioa nola egin jakitea izateaz gain, gida osatzeko atal ezberdinen erreferentzia jasotzeko ere balio izan nau. López Fernández Cao-ren bildumako gidak oinarritzat hartu ondoren, bi artista hautatu ditut nire gida sortzeko, eta horretarako bailarako emakumezko artista ospetsua izan den Ana Mari Marin margolaria eta Ana Mendieta margolari kubatarra aukeratu ditut. Ana Mendieta artista ezagunagoa bada ere, Marinen informazioa sareetan bilatzea oso zaila izan da, artista honen inguruko informazio gutxiago baitago. Aldiz, Martín de Retanak sortutako *Ana Mari Marín: su vida, su Baztán y su universo pictórico* liburua aurkikuntza handia izan da.

Informazio guztia bilatu ostean, aparteko word orrialde batean gidan sartu beharreko ideia guztiak idatzi dira eta behin informazio guztia osatuta, *blurb* izeneko aplikazioaren bidez gida osatu da.

5.3. Proposamenaren aurkezpena

Haur Hezkuntzako zikloan hezkuntza artistikoa lantzeko sortutako gidaren aurkezpena egiteko, goiz batez Baztan Ikastolara hurbildu naiz bertako irakasleei aurkezpen bat egitera. Ikastola barruan mahai biribil batean eserita jarri gara eta guztira emakumezko 5

hezitzailek hartu dute parte aurkezpenean, denak gazteak baina adin tarte ezberdinetakoak. Gorago aipatu bezala, bi fase bereizi dira aurkezpenean, irakasleei egindako galderak eta nire gidaren aurkezpena eta *feedback*-a.

Lehenengo fase honetan, ikastolan arteari eta, bereziki, arte feministari eskeintzen zaion garrantzia jakiteko, bertako irakasleekin elkarrizketa bat prestatu eta gauzatu da. Elkarrizketa horretan artearen alorraren eta hezkidetza lantzearen garrantziari buruzko 3 galdera egin dira. Galdera irekiak izan dira, irakasleen hausnarketa bultzatzeko asmoz eta azalpen pertsonalago bat emateko aukera emanez. Hauek izan dira planteatu zaizkien 3 galderak:

- Eskolan hezkidetza eta genero-berdintasuna lantzea garrantzitsua dela uste duzue?
- Eta hezkuntza-artistikoa bultzatzea?
- Zuen eskolan artearen alorra lantzen dela edo nahiko lantzen dela uste duzue?

Oro har, elkarrizketa honekin bilatu dudana eskolako irakasleek arte feminista gaiaren inguruan zer pentsatzen duten jakitea eta ze aurrezagutza dituzten behatzea izan da.

Galdera guztiak erantzunda, bigarren atalera igaro eta nire gidan zentratu ginen, zeinetan gida erakustez gain gidaren helburu nagusienak eta bertan sartutako atal garrantzitsuenak modu orokor batean azaldu zaizkie. Ez da gidaren aurkezpen sakona egin, lan hau aurrera eramateko haiek gidarekiko duten iritzia baita benetan interesatzen zaidana, nire gidaren aurkezpen zehatza ematea baino.

6. EMAITZAK

6.1. Gidaren aurkezpenaren emaitzak

Aurreko atalean aurrera eramandako proposamenaren aurkezpena aldekoa izan da, izan ere gida sortu aurretik planteatutako hipotesiei begira, hauek ebidentziekin erantzuteko informazio nahiko lortu da elkarrizketan. Horren harira, Baztan Ikastolan Haur Hezkuntzako zikloan arteari garrantzia handia ematen zaionaren ideia jaso da, baita emakumeak ikusarazteari ere. Haiek aipatutakoaren arabera, hezkidetzan lantzeari garrantzia handia ematen zaiola eta, hilabetero emakume erreferente bat lantzen dute, eta landutako emakume horietako bat Ana Marin izan da, nik sortutako gidan proposatutako autore. Haiek autore hau landu izana ere ezustekoa izan da, baina oso garrantzitsua iruditzen zait autore ezberdinak eta garaikideagoak lantzean jardutea, artea ez delako soilik egiten uztea, hau da, metodologia eta haurren autonomian soilik arreta jartzea, edukiak ere ezinbestekoak direlako, eta eduki garaikideak edukitzea aurrerapauso handia da. Eskolan askotan artea bai bultzatzen da baina ez dituzte erreferenterik eskaintzen, edo azaletik lantzen dira hainbatetan. Horregatik, irakasleei egindako elkarrizketan faltan bota nuen emakume erreferenteak lantzen zituztela aipatu ostean nola lantzen zituzten edo zergatik lantzen zituzten azaltzea, hau da, haien eskolan emakumezko erreferenteak lantzearen ideia nondik datorren jakitea.

Generoari dagokionez, aipatutakoaren arabera ez da generoaren lanketa bat ematen, genero ikuspuntua normaltasunez lantzen baitute egunerokotasunean, artea bezala modu zuzen edo zeharkakoan baita ere, askotan artea egiten ari garela dakigun arren, beste askotan konturatu gabe ari gara artea sortzen: ipuinak entzutean, kantatzean, aurpegiak margotzen dituztenean edota antzerkiak egiterakoan, alegia.

Bestalde, artearen alorra asko lantzen dutela jakinarazi dute, eta zirkulazio librea egotea lagungarria zaiela horretan, gela bakoitzak gune ezberdinak dituelako, pintzelan gunea edo sormena gunea, esaterako, eta horrek aukera ematen die artea modu anitzean lantzeko, eta sormenaz baliatuz bakoitzak bere ideiak azalertzeko edota elkarlanean jarduteko ere. Aipatutako ideiatik argi utzi dute eskolan arteari, hezkidetzari eta emakumeak ikusarazteari garrantzia handia ematen diotela eta asko lantzen dutela, aldiz, arrazoiak falta izan zaizkit. Elkarrizketan gai hauek pila bat lantzen dituztela aipatzen dute eta hori argi utzi nahi izan zuten, baina nola lantzen zuten, zenbat, zergatik... arrazoiak edo frogak falta izan dira, adibideak jarriz edo azalpen zehatzagoak emanaz. Aipatu dugu

zirkulazio librearen bitartez artea lantzeko aukera zutela haurrek, baina horregatik jada artea lantzen dute? Zirkulazio librea egoteak aukera ematen die haurrei haien interesekoak diren guneak erabiltzeko edo momentu bakoitzean nahi duten txokora joateko, aldiz, pintzelan txokoa egoteak nire iritziz ez du esan nahi jada artea lantzen dutenik. Gainera, artea lantzeari eta aniztasunari ematen dioten garrantzia ezagutarazi ostean aipatzen dituzten txokoak (pintzela edo tenperata gunea, hain zuzen ere) oso ohikoak dira, beraz zalantza sortzen da zabaltzen duten eskola berritzailearen ideia inguruan.

Naturako material manipulatioetan arreta jarritz, asko erabiltzen dituztela diote, inguruneak horretarako aukera ematen baitie, eta mosaikoak edo mandalak egiten dituzte. Material manipulatio horien erabilera garrantzitsua izateaz gain artea materialekin lotzen dute, hau da, esplorazioan, manipulazioan... zentratzen dira. Nire proposamenaren ideia artea eta natura lantzearena izan da, eta Baztan Ikastolako irakasleek asko lantzen dutela esan dute. Aldiz, nire proposamenaren eskaintagoa haratago doa, izan ere, Haur Hezkuntzan artea lantzeko gida da, artisten informazioa, bibliografia bat edota glosario bat daukana.

Gidaren aurkezpenari dagokionez, aurretik irakasleen interesaz jakitun banintzen ere, irakasle gehienek parte hartzea aktiboa izan da, hasieran parte-hartzea gehiago kostatu bazaie ere, berehala haien iritzia emateko prest eta gogotsu agertu baitira gehienetan. Gida interesgarria eta egokia iruditu zaie, hautatutako gaia Haur Hezkuntzatik lantzea ezinbestekoa izanik, eta proposatutako emakumezko bi artistak egokiak izanik ere. Horren harira, haiek egindako aipamen batzuk honakoak izan ziren: *“neri iruditzen zait zuk patu duzune ez? Kanpora atratzian hoi arras ongi dago ze guk parkean ere badute aukera ez? ibiltzeko naturako gauze hoiekin, baino aunitz eskoletan ez dute”*, eta beste irakasle batek gehitu zuen *“eta egokie iruditzen zait ere igual Haur Hezkuntzan hori behar da, material manipulatioekin egin eta ez papera eta, eta hor bakoitzak egingo du, barrenean duen hori adieraziko du ederki edo, bakoitza bere modura, e, polita”*.

6.2. Mugak eta hobekuntza proposamenak

Esan daiteke Haur Hezkuntzan natura eta artea lantzeko proposamen egokia bada ere, Baztan Ikastolan aurkeztu ordez beste ikastola baterako baliagarriagoa izan litekeela hasiera batean, izan ere, ikusi eta entzun dudanaren arabera Baztan Ikastolan arteari eta naturari garrantzi handia ematen diote, eta hauen bidez aniztasuna bilatzen dute, horregatik baliteke ikastolan beste gai baten inguruko lanketa baten beharra egotea. Hala ere, hezkuntza artistikoaren lanketa burutzen dutela argi uzten duten arren, gida honek artea lantzeko beste ikuspuntu bat eskaintzen du, gida baten bidez, non ikaslearen eta irakasleak parte hartzen duten ekintzan, eta Baztan Ikastolan artea beste ikuspuntu batetik lantzeko aukera ematen die honek.

Bestalde, konturatu naiz elkarrizketatu beharreko irakasleak ez ezagutzean edo haiekin harremanik ez izatean espero ez dudan erantzunak jaso ahal ditudala, hau da, erantzun motzak, garatu gabeak, taldeko erantzunak... horregatik, nire elkarrizketaren luzera ikusita, irakasle guztiek gehiago hitz egin dezaten saiatuko nintzen, irakasle batzuek nahiko hitz egin dutelako baina beste batzuek ia ezer ere ez. Jakin badakigu irakasleei haien erakusteko moduaren edo ikastolaren inguruan elkarrizketatzea zaila dela, epaituak sentitu daitezkeelako edo ez daudelako ohituta bat-bateko galderak erantzuteko, nahi bezalako arazoak emanez. Horregatik, irakasleei elkarrizketan egiten zaizkien galderak aurretik pasatu ahal zaizkie, galdera orokorrak eta gutxi badira ere baliteke horrela ideia garatuagoak ekartzea prestatuta etxetik, eta gehiago parte-hartzea, elkarrizketaren nondik-norakoa dakitelako. Horrez gain, galderak berdinak beste era batera planteatuko nituzke, irakasleek erantzun garatuagoa eman behar izate aldera. Ondokoak izan litezke galderak:

- Eskolan hezkidetza eta genero-berdintasuna lantzea zergatik iruditzen zaizue garrantzitsua?
- Eta hezkuntza-artistikoa bultzatzea zergatik da garrantzitsua?
- Zuen eskolan artearen alorra nola lantzen da?

Galdetzeko modua eraldatuta erantzuna ere erabat ezberdina izan daiteke, galdera hauek planteatuta dauden modua dela eta irakasleek erantzun garatuagoak ematera bideratuko baitituzte, eta “bai” edo “ez” erantzunak ekidin eta erantzun osatuagoak lortu daitezke.

7. ONDORIO OROKORRAK

Ukaezina da hezkuntzak gure garapenean eragina duela. Horregatik ezinbestekoa da hezkidetzak delako hezkuntza sustatzea, genero desberdintasunak alde batera utzi eta irizpide sexistei jarraiki gizon eta emakumeei egokitutako rol, balio eta jarrerak kontuan hartu gabe heztea. Horrez gain, hezkuntza artistikoa lantzearen garrantziaz ez ezik, hezkuntza sisteman eskaintzen zaion arreta eskasaz ere jabetu naiz. Lan hau ikasketa prozesu bat izan da niretzat bai arlo akademikoan baina baita pertsonalean ere, hezkuntza artistikoaren inguruko ezagutza jaso eta honen inguruan hausnartzeko aukera eduki dudalako

Lan hau aurrera eramateko, terminologia ezberdinez informatzea izan da gakoa, eta hori hezkuntzaren ikuspegi feministan eta artean janzteko baliogarria izan da, gaiaren inguruan ezagutza asko jaso baitut. Marko teorikoan hezkidetzaren bidean ibiltzen hasteko terminologia hauen berri ematean, kontzeptu hauek gaineratik jakitetik sakon aztertu eta ezagutza gehiago jasotzera pasa naiz, baita informatze ibilbide horretan gehienbat emakumezkoak diren erreferente asko ezagutzeko eta lantzeko aukera edukitzera ere (Nochlin, Beauvoir edota Butler, esaterako). Informazioa bilatze horretan jabetu naiz guzti hauek emakumeak ikusaraztearen inguruan jarduten dutela hein handi batean, eta lan honen bitartez nire ekarpena egin dudala uste dut honen harira.

Bestalde, terminologian informatze horretan topatu naiz eskoletan hezkuntza artistikoa lantzeko baliabide faltarekin, eta, beraz, Gradu Amaierako Lan honen beharrarekin. Horrez gain, marko teorikoan aipatutako informazioa bilatzea ere lan handia izan da, eta itzultzaile lanean jardun behar izan dut, gai hauen inguruan euskaraz informazio urria egotearekin topatu bainaiz. Ingeleseztan eta erdaraz irakurri behar izan dut informazio gehiengoa eta ondoren euskarara pasatzen ibili, eta horrek lana gehiago zaildu du.

Bestalde, eskuratutako beste gaitasun bat *blurb* gisako aplikazioak erabiltzen ikastea izan da, ez baita egunerokotasunean erabiltzen den aplikazioa, eta horregatik proposamen didaktikoaren edukia hautatzeaz gain, honen formatoa diseinatu eta ekoitzi behar izan dut, materialgintza prestatzearen beste urrats bat emanez. Guzti honek lana zaildu badu ere, etorkizunean erabilgarria izango zaizkidan gaitasunak eskuratu ditut teknologia berrien erabilerari dagokionez, gero eta teknologia gehiago erabiltzen delako eskoletan, eta Haur Hezkuntzako irakasleen kasuan esaterako, ez diete formakuntzarik eskaintzen teknologia berrien inguruan, egun hezitzaile lanean teknologiarekin jarduten badute ere, bideo asko editatzen dituztelako, argazkiak atera eta gurasoei bidaltzen dizkietelako...

Etorkizunera begira, hezkuntza artistikoa eta hezkidetzaren inguruan ezagutza jasotzeko materiala bada, baina oraindik material hauen erabilera erabat zabaltzeko bidea

luzea da. Marko teorikoan aipatu ditugun artista garrantzitsu asko lantzen dira askotan, baina hezkuntzako curriculumera ekarri beharko lirateke lanketa horiek, izan ere hezkuntza sisteman emakumezko erreferente gutxi ageri baitira, eta hauetako askok garatu duten ezagutza eta ekarpenak aztertuta daude.

Orokorrean, Gradu Amaierako Lan honekin hezkuntza artistikoa eta hezkidetzaren inguruan ezagutza asko jaso eta gaitasun handiak eskuratu ditut, eta Haur Hezkuntzan alor horiek lantzeko baliabideak falta direnarekin topatu naiz. Hezkuntza artistiko feminista lantzea zein garrantzitsua den ere ohartu naiz, eta etorkizuneko irakasle bezala gai honen inguruan janztea eta ikertzea aurrerapauso handia izan da. Dena den, egun hezkuntza artistikoari ematen zaion garrantzia handiagoa bada ere, lanketa handia geratzen da oraindik, eta hori bultzatzeko baliabideak sortzen jardutea ezinbestekoa izango litzateke.

8. BIBLIOGRAFIA¹

- Alcaide, Eva. (2010). Rescatadas aunque excluidas. Relatos alternativos sobre mujeres artistas. <http://hdl.handle.net/10459.1/58114>.
- Alfaya, Elena eta Villaverde, Dolores. (2009). Sexismo y misoginia en el arte moderno y contemporáneo: obras y artistas. *Arte, Individuo y Sociedad*, 21, 107-122. https://www.academia.edu/76866172/Sexismo_y_misoginia_en_el_arte_moderno_y_contempor%C3%A1neo_obras_y_artistas
- Arcos, Estela; Figueroa, Víctor; Miranda, Christian; eta Ramos, Carmen. (2007). Estado del arte y fundamentos construcción de indicadores de género en educación. *Estudios Pedagógicos*, 33(2), 121-130. <http://revistas.uach.cl/html/estped/v33n2/body/art07.html>
- Aristizabal, Pilar. (2011). *Emakume eta gizonen berdintasuna irakasleen formazioan. Gasteizko Irakasle Eskolaren kasua*. [Doktorego tesia. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/8138>
- Ballarín, Pilar. (2001). *La educación de las mujeres en la España contemporánea (siglos XIX-XX)*. Síntesis.
- Bessis, Sophie. (2000ko ekaina). Mujeres en movimiento. Cien años de feminismo. *El correo de la UNESCO*. [Hemendik berreskuratua:]https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000119981_spa/PDF/119966spa.pdf.multi.named_dest=119981
- Butler, Judith. (1999). *Genero nahasmendua. Feminismoa eta identitatearen subertsioa*. Elkar.
- Carbonell, Jaume. (1996). *Educación sexista y coeducación. La escuela entre la utopía y la realidad. Diez temas de sociología de la educación*. Octaedro.
- Clásicas y Modernas. (2020eko irailaren 18a). *Debate online “Las estrategias de exclusión hacia las mujeres en el arte y literatura”* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=so0JZekaK28&t=631s>
- Correa, Maritza. (2021). Diccionario Político: Androcentrismo, Homofobia, Mansplaining y Misoginia. EIEstado.Net: Hegemonía cultural para un nuevo imaginario colectivo. <https://elestado.net/2021/07/28/diccionario-politico-androcentrismo-homofobia-mansplaining-misoginia/>


- De Beauvoir, Simone. (1949). *El segundo sexo*. Cátedra.
- Emakunde eta Eusko Jaurlaritzaren (Kultura eta hizkuntza politika saila). (2020). *Feminismoa eta berdintasunaren hiztegia*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia [PDF]. Hemendik berreskuratua: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/coediciones/eu_def/adjuntos/hiztegia_feminismoa_berdintasuna.pdf
- Enjambre Feminista. (2014ko otsailaren 20a). [Feminismoaren definizioa]. [Argazkia]. <https://www.facebook.com/EnjambreFeminista/photos/a.1441447696090442/1441447712757107>
- Fundación General de la Universidad de Málaga. (2020eko azaroaren 3a). *Marián López Fernández-Cao: El arte como atención a la vida* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=axdwOFe59IY&t=3619s>
- Hik Hasi. (2017). Eskola feministarantz. Generoaren motxila husten. *Euskal Heziketarako aldizkaria*. *Hik Hasi*, bolumena (216), 11-18 [PDF]. Hemendik berreskuratua: http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2017/03/1518591886-216.hh-osoia.pdf
- Hik Hasi 25 urte. (2020). *Hik Hasi aldizkaria*, 248.
- López Fernández-Cao, Marián. (2000). La creación artística: un difícil sustantivo femenino. Hemen: Marián, López Fernández-Cao (Koord.). *Creación artística y mujeres. Recuperar la memoria* (13-47. orr.). Narcea.
- López Fernández-Cao, Marián. (2009). *Posibilidades de ser a través del arte*. Eneida.
- Machado, Majo. (2020eko abuztuaren 26a). *Estereotipos de género en el Arte*. [Bideoa]. Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=wFt-7Xxk_NY&t=257s
- Nafarroako Gobernua. (2015). *Baztango emakumeen eta gizonen arteko I.berdintasun plana*.
- Nochlin, Linda. (1971). *¿Why have there been no great women artists?* [PDF]. Hemendik berreskuratua: https://www.writing.upenn.edu/library/Nochlin-Linda_Why-Have-There-Been-No-Great-Women-Artists.pdf
- OME, (2018). *La salud sexual y su relación con la salud reproductiva: un enfoque operativo* [PDF] Hemendik berreskuratua: <https://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/274656/9789243512884-spa.pdf>

- Pollock, Griselda. (1988). *Vision and Difference. Feminism, femininity and the histories of art* [PDF]. Hemendik berreskuratua: https://edisciplinas.usp.br/pluginfile.php/5822278/mod_resource/content/1/Griselda%20Pollock-Vision%20and%20Difference_%20Feminism%2C%20Femininity%20and%20the%20Histories%20of%20Art-Routledge%20%282008%29.pdf
- Reizabal, Luixa (arg). (2007). *Gizarte-ezagutzaren garapena nerabegarora arte*. Udako Euskal Unibertsitatea. <https://www.buruxkak.eus/download/liburua/340/-1>
- Reizabal, Luixa. (2015). *Genero berdintasunean hezteko gida: Familia, ikasle eta bestelako hezitzaileentzat*. Euskal Herriko Unibertsitatea/ Udako Euskal Unibertsitatea.
- Reyes, Hernan. (1998). Relaciones de género y machismo. Entre el estereotipo y la realidad. *Íconos. Revista de Ciencias Sociales*, 5, 84-94. <https://revistas.flacsoandes.edu.ec/iconos/issue/view/39/142>
- Rompeviento TV. (2014eko otsailaren 7a). *Arte feminista con Guerrilla Girls en Luchadoras* [Bideoa]. Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=Z_mk1PUzMWQ&t=1091s
- Sau, Victoria. (1990). Diccionario ideológico feminista. volumen I. Icaria [PDF]. Hemendik berreskuratua [https://www.legisver.gob.mx/equidadNotas/publicacionLXIII/Victoria%20Sau%20-%20Diccionario%20Ideologico%20Feminista%20I%20\(1981\)..pdf](https://www.legisver.gob.mx/equidadNotas/publicacionLXIII/Victoria%20Sau%20-%20Diccionario%20Ideologico%20Feminista%20I%20(1981)..pdf)
- Nafarroako gobernua. (2017). *Skolae. Berdin bidean. Creciendo en igualdad*. [PDF]. Hemendik berreskuratua: https://consejoescolar.educacion.navarra.es/web1/wp-content/uploads/2017/09/SKOLAE-Berdin-Bidean-Creciendo-en-Iguadad_Programa.pdf
- Tolstoi, Lev. (2013). *Zer da artea?*. Meettok.
- Universidad Europea. (2022). *¿Qué es la educación artística y para qué sirve?*. <https://innovacion-educativa.universidadeuropea.com/noticias/educacion-artistica/#:~:text=La%20educaci%C3%B3n%20art%C3%ADstica%20es%20un%20m%C3%A9todo%20de%20ense%C3%B1anza,su%20crecimiento%20personal%20e%20incorporaci%C3%B3n%20al%20mundo%20laboral.>

¹Gradu Amaierako Lan honetan emakumeen ikusgarritasunaren garrantzia aipatu dugularik, inisialaren ordeiz izen osoa idaztea erabaki da, egilearen generoa ikusarazteaz gain emakumeek ikerketan egindako lana nabarmentzeko

9. ERANSKINAK

9.1. Marko teorikoa eraikitzeko autoreen mapa kontzeptuala



9.2. Sortutako gidaren txostena

- > **Portada:** Artea askatasunaren giltza. Naturaren bidez ikasi, sortu eta gozatu
- > **Zergatik aukeratu dira artista hauek eta gai hau?**

Haurrak naturarekin kontaktuan jartzea eta hura lantzea aberasgarria da, bereziki bi emakume artista eredutzat hartuz, bata artista Baztadarra eta bestea latinoamerikarra kasu honetan. Egun, natura zaintzeak daukan garrantzia dakigularik, txikienak ideia horretan heztea lortu nahi nuen, eta baita artearen alorrean barneratzea haurrak, honen interesa sustatuz. Artearen bidez ikasteaz gain gozatzea da gakoa. Horretarako aukeratu ditut Ana Maria Marín eta Ana Mendieta. Biek naturaren bidez askatasuna bilatzen dute, eta hura babesteko beharra azaltzen dute. Bestalde, natura babesteaz gain lurraldeko ohiturak mantentzea eta ezagutaraztea zein garrantzitsua den ere azaldu nahi nuen, eta horren bidez haurrak sorkuntzan murgildu zitezten. Haurrak jabetu behar dira sorkuntza ezagutza izateaz gain, esplorazioa, eraikuntza edota gozamina ere badela.

Hezkuntza sisteman eskeintzen diren ereduak hurbilekoak izan daitezkeela eta hauen erabilera bultzatzea ere garrantzitsua iruditu zait, biak emakumezkoak izateaz gain, gizarteak soilik eskeintzen dizkigun ohiko eruedetatik at eredugarriak diren beste artista askoren baitan ere ikasi eta gozatu dezakegulako, jatorri, arraza, erlijio edota garai ezberdinak aintzat hartuz.

- > **Nor zen Ana Mendieta?**

Egungo eskoletan ingurunea babesteari eta honekin harremanetan egoteari ematen zaion garrantzia hezkuntza artistikoarekin lotu ohi ez den arren, historian zehar iragandako emakumezko artista askok naturarekin lotura eduki dute. Emakumezko artista hauei hezkuntza sisteman behar duten bultzada eman eta ematen ez bazaie ere, aztertuta dago natura oinarri hartuz emakume artista hauek izan duten ibilbidea. Artista eredugarri horietako batzuk dira Frida Kahlo, Beatrix Potter, Georgia O'keeffe edota Menchu Gal, emakume izateagatik hezkuntzan baztertuak izan direnak.

Ana Mendieta artista Habanan sortu zen, 1948an. 12 urte bete zituenean gurasoek Estatu Batuetara bidali zuten Operación Peter Pan deituriko programa batekin, eta une horretatik errefuxiatua izan zen, lowako abegi etxeetan bizi izanez. Bere sorlekutik erbesteratzea, bere kultura eta jatorria izango da artistari identitate transkultural berri bat sortzera bultzatuko duena. Artista kontzeptual honen lanek feminismoaren, biolentziaren, bizitzaren, heriotzaren, tokiaren edota identitatearen inguruan hausnartzera daramagu, beti

ikuspuntu espiritualetik eta sinbologia sendoarekin. Erbestealdia da bere obraren pilar garrantzitsuenetariko bat, baina baita natura eta bere elementuak ere.

XX. mendeko 70. urtean hasi zuen ibilbide artistikoa Hans Brederren eskutik, zeinak adierazpen artistikoaren bitartekari berriak ezagutarazteaz gain *performance* eremuarekin lotura zuten hainbat artistekin harremana erraztu zion. Ibilbide motza izan zuen, 1985ean zendu baitzen, baina horrek ez zion galarazi burututako obra pertsonalekin ospe internazioanala edukitzea, eta arte bisualaren aintzindari bilakatzera. *Performance*ez gain marrazkiak, argazkiak edota eskulturak ere barne hartzen ditu.

Mendietaren lehenengo obrak 1972 eta 1975. urteetan izan ziren Iowa eta Mexikon, eta gizarte patriarkal anglosaxoiari eta honen estereotipoei egindako kritika gogorak izan ziren, bere gorputza biolentziaz beteta erakusten. Horrekin artistak tratu txarrak salatzen ditu, biktimen sinbolo unibertsala bilakatu. *Glass on Body* (1972) obran, Mendietak emakumeekiko indarkeria salatzen du. Bertan, artistak kristal bati gorputzeko atal ezberdinak itsasten dizkio, kolpatuak emanez.

Bestalde, *Facial Hair Transplant* (1972) obran, aldiz, bere lagun Marty Skalen bizarreko ilea jarri zuen aurpegian, identitate maskulinoa eta femeninoaren bariazioa aldarrikatu.

1973 eta 1980 bitartean zenbait silueta egin zituen. *Flowers on the body* izan zen burutu zuen lehenengoa. Artista hilobi zapoteca baten gainean etzanda ageri da, biluzik, eta lore batzuek bere gorputza zatika estaltzen dute. Obra hauen bitartez, bere gorputza naturarekin harremantzeaz gain bere jatorriarekin eta familia latinoamerikarrarekin benetako lotura sortzen du. Bestalde, 1983 eta 1985 bitartean eskulturak eta marrazkiak ere egin zituen egurra eta orrietan. Oro har, Mendietak burututako obrak *earth-body-art* kontzeptuaren barruan biltzen direla eta, baliteke *body art* eta *land art* nahasten lehenengo pertsona izatea.

Naturarekiko harremanari dagokionez, bere gorputzetik abiatuta naturaren eta honen elementuekin lotura lantzen du, gure ingurunearekiko errespetua eta maitasuna lantzeko gai egokiez baliatuz. Mendietak lotura hori lantzen du, bere abegi herrialdean jasan duen berakoa ez izatearen sentimendua eta abandonu sentsaziotik askatzeko. Bestalde, naturarekin duen imitazio horrekin bere jatorri kubatarrera itzultzea lortu nahi izan du. Artistak esaten zuenez, emakumezko gorputzaren eta paisaiaren arteko elkarriketa ekartzen aritu da, bere silueta oinarri hartuz. Bere nerabezaroan bere sorlekutik mugitzearen zuzeneko ondorioa da bere iritziz, eta naturatik urrundua izanaren sentimenduak gain hartu izan du. Bere artea unibertsoarekin lotzen duten erlazioak berrezartzeko bide da, eta bere

esanetan bizitzaren berehalakotasuna eta naturaren betierekotasuna adierazi nahi izan du honen bitartez.

Bere lanak gorputzan, bere gorputzan, emakumearen gorputzan jartzen du arreta, eta gorputz horrek naturako elementuekin duen loturan: airearekin, suarekin, urarekin... Interesgarria da ikustea zer zegoen bere emakume gorputzaren atzean, ez zelako soilik pertsona atzerriratu bat, baizik eta emakume bat, emakume bat Estatu Batuetako historiako une batean, baina baita Kubako historian, non emakumearen rola oraindik gutxietsita zegoen.

Emakumeen gorputzaren irudikapenak garrantzi handia dauka bere obretan. Emakumeek beren gorputzak erabiltzen dituztenean, berehala nartzisistatztat hartzen dituzte, izan ere, hauen gorputza errepresentatzeak eta honi erabilera publikoa emateak, gizonezko gorputzari ematen zaizkion konnotazio ezberdinak dauzka: biluzi maskulinoa neutrotzat hartzen den heinean, emakumezkoak biluztean gorputza erabat sexualizatuta dago, eta prejuizioz betea. Horregatik Mendietak gorputza bitartekari gisa erabiltzen zuen, eta erakutsi nahi zuen tradizio maskulinoak emakumeen biluzia idealizatzeko daukan ohitura horri erronka egin ziezaiokeela bere gorputzaren bidez.

> **Nor zen Ana Maria Marin?**

Ana Mari Marin artistaz ez dago hainbeste informazio sareetan, baina Martín de Retanak sortutako *Ana Marin: su vida, su Baztan y su universo pictórico* liburuan artista honen informazio anitza topatu daiteke.

Marin Elizondon sortu zen, aita baztandarra, ama donostiarra eta amona oriotarra zituela. Ingurugiro burges batean sortu bazen ere, Gerra Zibilak erabat aldatu zuen egoera hori, eta 3 urte zituenean bere familia guztia Frantziara erbesteratua izan zen. Ondoren Donostiara joan zen bizitzera eta bertan hasi zituen marrazketa ikasketak, 13 urte zituela. Txiki-txikitatik jarri zuen interesa artean, eta gogoratzen da bere lehen koadroa Donostian bizi zela gaixo egon zen denboraldi batean egin zuela, 8 urterekin. 1944an, aldiz, bere ahizparekin Elizondora bueltatu zen eta bertan hasi zen modu jarraituagoan margotzen.

Esan daiteke Marinek betidanik margolari ibilbidea garatu duela, lengoia propioa eta formen, koloreen, materialen eta tekniken menderatze handiarekin, baina 17 urtetan hasi zen Elizondora zerbitzu militarra egitera etorri zen Ismael Fidalgorekin klaseak ematen. 1952an Donostiara bueltatzen da *Florerros y Bodegones* deituriko lehiaketan parte hartzera, zeinetan aipamen berezi bat jasotzen duen. Gainera, bere lehenengo erakusketa kolektiboa izan zen.

2 urte beranduago Madrilera joan zen Arte Ederretan formazioa jasotzera, etorkizunean erreferente eta lagun ona izango zuen Menchu Gal margolariak aholkatuta.

1956an Iruñeako García Castañón de la Caja de Ahorros Municipal gelan lehenengo erakusketa indibidualean hartu zuen parte, eta hortik aurrera hainbat erakusketa egin zituen Iruñea, Donostia, Madril, Bilbo, Baiona eta Baztanen.

Artista honek pinturari egindako ekarpena paisaiaren generoetan, ohituren margolanetan, hildako naturan eta erretratuan zentratzen da. Natura hondatzeaz zeukan kezka hori jakinda, bere obrak baztandarrok kontserbatu behar dugun edertasun hori irudikatzearen saiakera izan daitezke. Horietako bat da *Elizondoko merkatua* obra, zeina bere produkzioko atal nagusi gisa igarria izan baitzen Carmen Alegria biografoari esker.

Baztango naturak Ana harrapatua zuen margolaritzan hasi zenetik. Beretzat Baztan margotzea arnastea bezala zen, beharrezkoa. Horregatik, zentzumenentzat erakargarriak ziren koadro multzo bat pintatzen zuen, bere tonalitate bereziak nabarmen islatuz, adierazi nahi zuena zer zen ongi zekielerik. Ikuspuntu metodologikotik, paisaia marrazteko modua ez zen erabat ohitura airelibristara ematen, obra bat hasi eta toki berean bukatzearen ideia barruan. Paisaia naturalaren lehen behaketak egiten zituen, konposizioari, balio atmosferikoari, argiari eta koloreari dagokionez, eta ondoren bere estudioan bukatzen zuen obra, bakarrik. Berak zioenez bere sormenaren une esanguratsuena zen.

Artistak paisaia idealizatzen zuen egungo zibilizazioaren arriskutik babesteko, eta horregatik maitasunez hurbiltzen zitzaion, kolorearen tonuak kontrastatuz eta argitasun ukituekin. Baztango paisaia margotzea gustatzen bazitzaion ere, ezin da Baztango paisajita bezala sailkatu, beste lurralde asko ere interesatu baitzaizkio: Andaluzia, Kantabria, Mantxa, Errioxa, Euskal Herria eta Nafarroaren gainerako lurraldeak ere.

Erabiltzen zuen beste gaietako bat bodegoiak ziren, eta Picassoren eragina aurkitzen zen hauen formetan. Bodegoietan jateko gauzak, ontziak eta tresnak agertzen dira, baita batzuetan loreak ere. 86ean izan zen benetan bere bodegoiak eta paisaiak lutoz bete ziren momentua, urte horretan 22 urteko bere alababixia zendu baitzen eta 1993an aldiz bere koinatua eta anaia zaharrena. Anak bere anaiari bodegoi bat eskeini zion *Flores junto al violín de Gregorio*, non bere galeraren mina gordetzen zen. Gerora, obra hori Nafarroako Museoak erosi zuen. Gaiekin jarraituz natura hilak topatuko ditugu, sakonean paisaia txikiak zirenak, loreak eta sortak ez baitziren falta. Margolan hauekin sentitzera gonbidatzen zizun, eta ez hainbeste obraren analisisira. Askotan, natura askea bultzatzeko erabiltzen zuen gaia zen, natura zein garrantzitsua den konturatzeko erabiltzen zituenak. Horrekin argi geratzen da Marinentzat zenbateraino zen natura bere obrako protagonista funtsezkoena. Erretratuak

egitea ere Marinek asko gustuk zuen, motibazio hutsagatik margotzen baitzituen, eta inoiz ez enkarguz. Gainera, erretratuetakoko pertsonaiak bere bizitza pertsonalean garrantzitsuak izan zirenak ziren: Menchu Gal, amona Elisa Arin, Oteiza...

Bestalde, bere obretako koloreek garrantzia handia zeukaten, eta hauen bidez sentimenduak adierazten zituen. Van Goghek adierazi zuen bezala koloreak bere baitako zerbait adierazten du. Baztango paisaiaren kasuan kolore berdea, hori-morea eta gorria erabiltzen zituen udazken beroa adierazteko, gehien gustuko zuen urtaroa izanik. Aipatutako koloreez gain ere kolore gehiago gustuko zituen, malba kolorea esaterako, gehienetan falta zuenarekin erlazionatzen zuena. Berde kolorea, aldiz, epelagoak diren koloreekin trantsizioa egiteko erabiltzen zuen, edota horia, Nafarroako koltza eta ekilore landak irudikatzeko edo Mantxako eremu zabalak irudikatzeko ere. Urdina, bestalde, neurritz erabiltzeko kolorea zen beretzat, bereziki zeruetan. Kolore masa bat bezala erabiltzen bazuen ez zuen nahi zuen mugimendua lortzen. Urdina grisarekin hoztua nahiago zuen, lasaitasun aire bat ematen ziolako, eta Baztango zeruan berezkoa dena. Hala ere ez zuen urdin bizia ukatzen kasu batzuetan.

Teknikari dagokionez, gehien erabiltzen zuena olioa zen, eta bere adierazpenaren arabera pintzelari birak ematen zizkion, dibertigarria eta xelebrea iruditzen zitzaion jestua zela esanez. Aldiz, paperean egindako akuarelak ere bazeuzkan, arinagoak eta gorpuzgabeagoak, baina kritikoek produkzioko onena bezala baloratu zituztenak. Arreta deitzen zuten bitxiagoak direlako, artista plastikoek ez ziotelako teknika horri maiz heltzen.

Bere ibilbide artistikoarekin lotuta, txiki-txikitatik marrazten aritu bazen ere 1960an margolaritzatik arreta galdu zuen, bere aitaren heriotzaren eraginez. Margotzen jarraitu bazuen ere erakusketak eten zituen une bakarra izan zen hori, eta etxekoak aurrera ateratzeko asmoz Iberiako airelineetan lanean hasi zen. Lan horrek, aldiz, aukera eman zion beste herrialdeetarra bidai anitzak egiteko eta kultura eta herrialde ezberdinak ezagutzeko. Horrez gain, 1967an Baztanen kargu publikoetara ere aurkeztu zen eta bertan jardun zuen lehenengo emakumea ere izan zen, ez baitzuen jasaten paisaia naturalak nola suntsitzen ari ziren ikustea. Horrez gain, bertako ohiturak berreskuratzen lagundu eta orduko gizarte lasai eta ekimenik gabeko batean kulturak aurrera egin zezan ahalegindu zen. Gainera, 1975etik 1977ra Elizondoko alkatea izan zen. Ez da uste feminismoa artistaren hiztegian dagoenik, ezta bere ekintza berezi batzuez kontziente izan denik ere, baina Baztango kargu publikoetan jardun zuen lehen emakumea izateak edota bere amarekin batera Elizondon galtzak erabiltzen lehenengo emakumea izateak zer pentsa badauka.

Baztan bailarako margolarien artean erreferenteetako bat izan da Marin, eta 2020an zendu zen arte baztan bailara babestearen alde borrokatu izan du pinturaren bitartez. Guztiaren gainetik pintura sentimenduen transmisioa zen beretzat.

> **Adinaren araberako ikuspuntu posibleak:**

Ana Mendieta eta Ana Mari Marin artisten ikerketa adin guzietan praktikan jarri daiteke, adin bakoitzarentzat egokitzen diren elementu eta helburu ezberdinen baitan. Hauen bidez, gaia anitz landu ditzazkegu: naturarekin eta honen elementuekin harremantzen hastea eta hauekiko ezagutza jasotzea, zuhaitz, fruitu eta loreen izenak ezagutzea, haurrak sorkuntza prozesuan murgiltzea inguruan ditugun elementu ezberdinak erabiliz, natura babestearen garrantzia eta honen iraupenaren beharra ezagutzea... alderdi guzti hauek Haur Hezkuntzatik hasita landu ditzazkegu, helburu bakoitza adin bakoitzera egokituz.

Bestalde, haur hezkuntzara erabat egokitzen ez den arren, emakume izateagatik gutxietsiak diren bi emakume artista ezagutarazi eta hauen inguruko informazioa jasotzea lortuko da, eta emakumeei ere historian eskeini zaien lekua eta hauen garrantziaz hausnartuko da.

> **Adin ezberdinetako helburuak:**

○ **Helburu nagusiak:**

- Baztango eskoletan artearen alorra bultzatzea eta bertako kultura ezagutaraziz honen interesa sustatzea, galera ekiditeko.
- Kultura txikikoak edo ezberdinekoak diren artisten obrak ezagutzera ematea.
- Haien ingurune naturala, kulturala edota soziala esploratzea. Artearen bitartez naturarekiko errespetua erakustea eta honen biziraupena zein garrantzitsua den jakinaraztea etorkizunera begira.
- Besteekin harremantzea eta elkarrekintzan jardutea.
- Artearekin lotutako sormena garatzea.
- Adierazteko modu ezberdinekin komunikatzeko gaitasuna garatzea.

○ **Helburu zehatzak:**

- *Land art* mugimenduaren bidez artearen mundura gerturatzea.
- Ingurune naturaleko elementuak behatu eta ezagutzea, inguruan daukatenarekiko jakin-mina piztuz.
- Elementuen bidez koloreak, formak, tamainak edota ehundurak ezagutzen eta identifikatzen joatea.
- Naturarekin kontaktuan egoteak eta hura manipulatzeko gozamina eragitea.
- Motrizitate fina eta gordina lantzea.

- Norbere sentimenduak paperean adierazten eta bakoitzaren identitatea errespetatzen ikastea.

➤ **Jardueraren garapena:**

Jarduera gauzatzeko, Haur Hezkuntzako 4-5 urteko ikasleengana joko dugu. Haur Hezkuntzako bigarren ziklora bideratuta dago gehienbat jarduera, adin horretan haurrak naturarekin asko harremantzen hasten direlako, herriko kaleetan barrena ibiltzen, parkeetara maizago joaten... Natura haur hezkuntzatik lantzea oso garrantzitsua da, etapa horretan hasten baitira ingurunearekin harremantzen, hau da, ingurunea behatzen, manipulatzeko eta esploratzeko. Gainera, garrantzitsua iruditu zait naturarekin harremanetan jartzeko ohiko bidez gain beste bide ezberdinak eskaintzea, artearena esaterako. Horrez gain, natura eta bere elementuak behatzea, hauekiko ezagutza jasotzea, manipulazioaren bitartez psikomotritate fina lantzea eta esplorazioaren bidez gozatzea lortu nahi izan da.

Bestalde, jarduera lantzeko etapa egokia iruditu zait, adin horretako haurrentzako artea ezinbestekoa baita, eta gehienbat marrazketarekin lotzen ohi dugun arren, artearen alorra oso zabala da. Horregatik, artea lantzeko *land art* deitutako joera ezberdina ezagutarazi nahi izan dut, egungo joera ohikoetatik at dagoelako.

Nire helburua natura haurrengana hurbiltzea izan da, eta honen bitartez askatasuna eta sentimenduen adierazpena ere landu, behatuz, manipulatu eta esploratu. Natura eta artea bezalako bi alor hauen arteko lotura ezartzea ere interesgarria iruditu zait, egungo eskoletan biak lantzen saiatzen diren arren, ez baitira biak erlazionatzen.

Jarduera hasi aurreko egunean, haurrak testuinguruan sartzeko, gelan gaudela *land art* joera aintzat hartzen duten irudi ezberdinak ikusiko ditugu denok elkarrekin, eta artea sortzeko joera horren ideia garrantzitsuenak azalduko dizkiegu haurrei. Horrela, haurrak ezagutza jasotzen joango dira, eta arte mota horrekin sortutako obra ezberdinak behatuko dituzte. Unitate didaktikoa aurrera eramateko lagungarria izan den Ana Mendietaren 4 obra erakutsiko ditra, baita Alice Aycock artistaren beste 3 ere, zeinak haien obrak egiteko *land art* joeraz baliatzen diren bi emakumezko artista diren. Bi artista hauen obrak ezagutzeak balioko die haurrei artearen ideia horrekin harremantzen hasteko eta, gehienbat, mundu honetan pintatzen dugunarekin eta honentzako zein onuragarriak edota kaltegarriak izan gaitzkeenaren inguruan hausnartzeko.

Hurrengo egunean, jarduerarekin hasteko, aurreko egunean ikusitakoa gogoratuko dugu, nola artista batzuek naturarekin harremanetan sortzen zituzten obrak. Horren ostean, *land art* joera hori aintzat hartuz beste haur batzuek egindako 5 irudi ikusiko ditugu interneten, haurrek ideien bat hartu dezaten nahi izanez gero. Beste haurrek egindako lanak ikusi ondoren kanpora aterako gara, eta bertan gaudela haurrei aurkitzen dituzten naturako elementu ezberdinak biltzen joan daitezten esango diegu: harriak, belarra, adarrak, hostoak, loreak, gaiztainak... aurkitzen duten eta nahi duten guztia. Elementu ezberdinak bildu ondoren, aurretik gelan erakutsi dizkiegun irudien gisako bat egiteko eskatuko diegu, nahi duten elementuekin eta nahi duten irudia errepresentatuz, bakoitzak bere pentsamenduen barruan sakontzea eta horren arabera sortzea baita gakoa. Hau da, naturako elementuak erabiliz haurrek irudi bat sortu beharko dute lurrean. Horrez gain, elkarren artean elementuak partekatu ditzazkete edota irudia binaka osatu ere, haurrak elkarrekintzan jardutea oso garrantzitsua baita.

Irakasleok bitartean, irudiak egiten ari direnean eta ostean argazkiak aterako dituzte, eta kartulinazko argazki-albuma sortuko da gero. Albuma egiteko kolore ezberdinetako kartulina txikiak hartuko ditugu, eta inprimatu edo errebelatutako argazkiak itsatsiko ditugu hauetan. Geratzen diren kartulina zatietan marrazki bakoitza norek egin duen idatzi daiteke, edo marrazkiak egin ditzazkete haurrek ere. Kartulina guztiak prest egonda, denetan ezkerreko aldean 3 zulo txiki egingo dizkiegu eta sokekin denak lotuko ditugu, liburuxka bat sortuz. Azkenik, liburuaren portada marraztu eta prest!

> **Materiala:**

Jarduerarako materiala:

- Ordenagailua eta interneta
- Naturako elementuak

Albuma egiteko:

- Kolore ezberdinetako kartulinak
- Argazkiak
- Kola
- Errotulagailuak
- Kartulinetan zuloak egiteko tresna
- Sokak

➤ **Bibliografia:**

- A. (2015eko otsailaren 20a). *Siluetas series 1973-78* [Mezua blog batean]. Hemendik berreskuratua: <https://blogs.uoregon.edu/anamendieta/2015/02/20/siluetas-series-1973-78/>

“Blog hau oso interesgarria da Ana Mendieta-ren obra ezberdinak agertzeaz gain, ibilbide artistikoan zehar bere arteak edukitako fase ezberdinak zehazki adierazten direlako. Erabilgarria da, beraz, bere obraren atzean dagoen ideia zein den jakiteko eta, horrela, obra hobeto ulertzeko. Gainera, artea egiteko ohiko moduak baztertzen ditu beste arte mota ezberdin eta erakargarriak eskeiniz”.

- De Retana, M. (2003). *Ana Marín: su vida, su Baztán y su universo pictórico*. La Gran Enciclopedia Vasca.

“Lehen aipatu bezala Marinen inguruko informazioa bilatzeko zailtasunak egon daitezkeen arren, liburu honek artistari buruzko informazio anitza eskeintzen du. Gainera, artistaren obra asko ageri dira bertan. Liburu honek Marinen inguruko informazio osatua eskeintzen duela eta, bere marrazkilari ibilbidearen informazioa jasotzeko balio izan dit, hau gabe ez bainuen informazio nahikorik lortu izanen”.

- López Fernández-Cao, M. (2009). *Principios. Educación, creación e igualdad. Colección Posibilidades de ser a través del arte*. Eneida.

“Gida hau baliagarria izan da eskolan artea zergatik landu eta nola landu jakiteko. Horrez gain, artea, sorkuntza edota ekitatea lantzearen garrantzia aipatzen da, hezkuntzan diharduten irakasleak hezkidetzatza eta artearen alorrean murgiltzen hasteko beharrezko ezagutzak eskainiz. Hezkidetzatik abiatutako hezkuntza artistikoa lantzeko erabilgarria den gida da”.

- López Fernández-Cao, M. (2009). *Imaginarse el mundo, imaginarse el fin del mundo*. Hildegarda de Bingen, Ende. *Colección Posibilidades de ser a través del arte*. Eneida.

“Emakumezkoak diren bi artista oinarri hartuz, haurrekin artea lantzeko aukera eskeintzen du gida honek. Egun hezkuntzan ikasi beharrezko gaiak, erakusten diren ohiko moduetatik haratago joan eta beste bide berrien erabilera bultzatzeko balio du,

artearen bidezko ezagutza, esaterako. Artearen bidez ikasten dugun heinean gozatu dezakegula erakusten digu”.

- Torres, S. (d.g.). *Ana Mendieta* [Mezua blog batean]. Hemendik berreskuratua: <https://womanarthouse.com/2018/03/11/ana-mendieta/>

“Ana Mendieta inguruko informazioa eskeintzen duen blog-a da, informazioaz gain berak egindako obra batzuk ageri direlarik. Bere gorputzaren eta naturaren arteko lotura ezartzearen ideia inguruan mintzo da, baita bere obra batzuen zergatiaren inguruan ere. Mendieta obra garrantzitsuenak ezagutzeko baliogarria da”.

- Zubiaurre, F.J. (2013ko urria). *La pintura de Ana Marín. Síntesis y dirección de una trayectoria* [Mezua blog batean]. Hemendik berreskuratua: <https://www.zubiaurcarreno.com/la-pintura-ana-marin-sintesis-direccion-una-trayectoria/>

“Marinen informazioa eskeintzen digun blog-a da. Blog honetan eskeintzen den informazioa goian aipatutako Martín de Retanak sortutako liburutik hartua dagoen arren, Marinen bizitzaren eta bere artista ibilbidearen inguruko laburpen egokia da”.

➤ **Glosarioa:**

- **Land Art:**

Land art izeneko arte-korrontea zuzenean paisaian egiten den artea da, eta lurra bera moldatu edo paisaia aldatzen da naturan dauden elementuak erabiliz. *Land art* edo *earthwork* 1960ko eta 1970eko hamarkadetan eman zen arte-kontzeptual mugimenduaren parte izan zen. Talde aintzindari batek sortu zuen: inguru naturalak, artea egiteko modu desberdinak eta arte komertziala saihesteko moduak ikertzen zituzten, besteak beste.

- **Performance:**

Ekintza artistikoa da, probokatzeko asmoz sortutako espektakulu edo ekintza. 1970eko hamarkadan adierazpen artistikoko baliabide gisa onartua izan zena, eta bat-batekotasuna eta ikuslearekin konexio zuzena dira honen oinarri funtsezkoenak.


- **Transkultural:**

Kultura batek gizabanakoan eta honen gizartean duen eragina, eta kultura ezberdinak elkartzen direnean eragin horrek dituen ondorioak hartzen ditu.

- **Zapoteca:**

Kolonaurreko garaian, zapotecak Mesoamerikako zibilizazio garrantzitsuenetako bat izan ziren, egun Mexikoko Oaxaca estatua den eremuan bizi zirena. Jatorria K.a 250 eta 800eko denboraldikoa zela pentsatzen da, eta Itsmotik Acapulcoraino zabaldu zen, herrialdean 2500 urtez bizi izanez gutxi gora behera. Zibilizazio horren kulturaren garrantzia hain handia izan zen hurbileko kultura askotan eragina izan zuela, maien, azteken eta teotihuacanen katuran, esaterako.

9.3. Gidaren argazkiak




ANA MARI MARIN



ANA MENDIETA





Ana Mendieta's work

ZERGATIK AUKERATU DITUT ARTISTA HAUEK ETA GAI HAU?

Haurrak naturarekin kontaktuan jartzea eta hura lantzea aberasgarria da, bereziki bi emakume artista eredutzat hartuz, bata artista baztandarra eta bestea latinoamerikarra, kasu honetan. Egun, natura zaintzeak daukan garrantzia dakigularik, txikienak ideia horretan heztea lortu nahi nuen, eta baita artearen alorrean barneratzea ere, honen interesa sustatuz. Artearen bidez ikasteaz gain gozatzea da gakoa. Horretarako aukeratu ditut Ana Mari Marin eta Ana Mendieta, biek naturaren bidez askatasuna bilatzen baitute, eta hura babesteko beharra azaltzen dute. Bestalde, natura babesteaz gain lurraldeko ohiturak mantentzea eta ezagutaraztea ere zein garrantzitsua den ere azaldu nahi nuen, eta horien bitartez haurrak sorkuntzan murgiltzea. Haurrak jabetu behar dira sorkuntza ezagutza izateaz gain esplorazioa, eraikuntza edota gozamina ere badela.

Hezkuntza sisteman eskeintzen diren ereduak hurbilekoak izan daitezkeela eta hauen erabilera bultzatzea ere bilatu da, biak emakumezkoak izateaz gain gizarteak soilik eskeintzen dizkigun ohiko ereduetatik at eredugarriak diren beste artista askoren baitan ere ikasi eta gozatu dezakegulako, jatorri, arraza, erlijio edota garai ezberdinak aintzat hartuz.

NOR ZEN ANA MENDIETA?

Egungo eskoletan ingurunea babesteari eta honekin harremanetan egoteari ematen zaion garrantzia hezkuntza artistikoarekin lotu ohi ez den arren, historian zehar iragandako emakumezko artista askok naturarekin lotura eduki dute. Emakumezko artista hauei hezkuntza-sisteman behar duten bultzada eman eta ematen ez bazaie ere, aztertuta dago natura oinarri hartuz emakume artista hauek izan duten ibilbidea. Artista eredugarri horietako batzuk dira Frida Kahlo, Beatrix Potter, Georgia O'Keeffe edota Menchu Gal, emakume izateagatik hezkuntzan baztertuak izan direnak.

Ana Mendietaz asko dakigu. Artista hau Habanan sortu zen, 1948an. 12 urte zituenean gurasoek Estatu Batuetara bidali zuten Operación Peter Pan deituriko programa batekin, eta hune horretatik errefuxiatua izan zen, lowako abegi etxeetan biziz. Bere sorlekutik erbesteratzea, bere kultura eta jatorria izango dira artistari identitate transkultural berri bat sortzera bultzatuko diotenak. Artista kontzeptual honen lanek feminismoaren, biolentziaren, bizitzaren, heriotzaren, tokiaren edota identitatearen inguruan hausnartzera daramagu, beti ikuspuntu espiritualetik eta sinbologia sendoarekin. Erbestealdia da bere obraren pilar garrantzitsuenetariko bat, baina baita natura eta bere elementuak ere.

XX. mendeko 70. urtean hasi zuen ibilbide artistikoa Hans Brederren eskutik, zeinak adierazpen artistikoaren bitartekari berriak ezagutarazteaz gain *performance* eremuarekin lotura zuten hainbat artistekin harremana erraztu zion. Ibilbide motza izan zuen, 1985ean zendu baitzen, baina horrek ez zion galarazi burututako obra pertsonalekin ospe internazionala edukitzea, eta arte bisualaren aintzindari bilakatzera. *Performance*ez gain marrazkiak, argazkiak edota eskulturak ere barne hartzen ditu.

Mendietaren lehenengo obrak 1972 eta 1975. urteetan izan ziren Iowa eta Mexikon, eta gizarte patriarkal anglosaxoiari eta honen estereotipoei egindako kritika gogorrak izan ziren, bere gorputza biolenziaz beteta erakusten. Horrekin artistak tratu txarrak salatzen ditu, biktimen sinbolo unibertsala bilakatuz. *Glass on Body* (1972) obran, Mendietak emakumeekiko indarkeria salatzen du. Bertan, artistak kristal bati gorputzeko atal ezberdinak itsasten dizkio, kolpatuak emanez.



Mendietaren obra, 1972

Bestalde, *Facial Hair Transplant* (1972) obran, bere lagun Marty Skalen bizarreko ilea jarri zuen aurpegian, identitate maskulinoa eta femeninoaren bariazioa aldarrikatuz.


1973 eta 1980 bitartean zenbait silueta egin zituen. *Flowers on the body* izan zen burutu zuen lehenengoa. Artista hilobi zapoteca baten gainean etzanda ageri da, biluzik, eta lore batzuek bere gorputza zatika estaltzen dute. Obra hauen bitartez bere gorputza naturarekin harremantzeaz gain bere jatorriarekin eta familia latinoamerikarrarekin benetako lotura sortzen du. Bestalde, 1983 eta 1985 bitartean eskulturak eta marrazkiak ere egin zituen egurra eta orrietan. Oro har, Mendiak burututako obrak *earth-body-art* kontzeptuaren barruan biltzen direla eta, baliteke *body art* eta *land art* nahasten lehenengo pertsona izatea.

Naturarekiko harremanari dagokionez, bere gorputzetik abiatuta natura eta honen elementuekin lotura lantzen du, gure ingurunearekiko errespetua eta maitasuna lantzeko gai egokiez baliatuz. Mendiak lotura hori lantzen du, bere abegi herrialdean jasan duen bertakoa ez izatearen sentimendua eta abandonu sentsaziotik askatzeko. Bestalde, naturarekin duen imitazio horrekin bere jatorri kubatarrera itzultzea lortu nahi izan du.

Artistak esaten zuenez, emakumezko gorputzaren eta paisaiaren arteko elkarrizketa ekartzen aritu da, bere silueta oinarri hartuz. Bere nerabezaroan bere sorlekutik mugitzearen zuzeneko ondorioa da bere iritziz, eta naturatik urrunduia izanaren sentimenduak gain hartu izan du. Bere artea unibertsoarekin lotzen duten erlazioak berrezartzeko bide da, eta bere esanetan bizitzaren berehalakotasuna eta naturaren betierekotasuna adierazi nahi izan du honen bitartez.

Bere lanak gorputzan, bere gorputzan, emakumearen gorputzan jartzen du arreta, eta gorputz horrek naturako elementuekin duen loturan: airearekin, suarekin, urarekin... Interesgarria da ikustea zer zegoen bere emakume gorputzaren atzean, ez zelako soilik pertsona atzerriratu bat, baizik eta emakume bat, emakume bat Estatu Batuetako historiako une batean, baina baita Kubako historian, non emakumearen rola oraindik gutxietsita zegoen.

Mendietaren obrak




Performance, 1974



Tree of life, 1976



Silueta, 1973



Glass on Body, 1972

Emakumeen gorputzaren irudikapenak garrantzi handia dauka bere obretan. Emakumeek beren gorputzak erabiltzen dituztenean, berehala nartzisistatzen hartzen dituzte, izan ere, hauen gorputza errepresentatzeak eta honi erabilera publikoa emateak, gizonezko gorputzari ematen zaizkion konnotazio ezberdinak dauzka: biluzi maskulinoa neutrotzat hartzen den heinean, emakumezkoak biluztean gorputza erabat sexualizatuta dago, eta prejuizioz bete. Horregatik Mendietak gorputza bitartekari gisa erabiltzen zuen, eta erakutsi nahi zuen tradizio maskulinoak emakumeen biluzia idealizatzeko daukan ohitura horri erronka egin diezaiokeela bere gorputzaren bidez.

NOR ZEN ANA MARI MARIN?

Ana Mari Marin artistaz ez dago hainbeste informazio sareetan, baina Martín de Retanak sortutako *Ana Marín: su vida, su Baztán y su universo pictórico* liburuan artista honen informazio anitza topatu daiteke.

Marin Elizondon sortu zen, aita baztandarra, ama donostiarra eta amona oriotarra zituela. Ingurugiro burges batean sortu bazen ere, Gerra Zibilak erabat aldatu zuen egoera hori, eta 3 urte zituela bere familia guztia Frantziara erbesteratua izan zen. Ondoren Donostiara joan zen bizitzera eta bertan hasi zituen marrazketa ikasketak, 13 urte zituela. Txiki-txikitatik jarri zuen interesa artean, eta gogoratzen da bere lehen koadroa Donostian bizi zela gaixo egon zen denboraldi batean egin zuela, 8 urterekin. 1944an, aldiz, bere ahizparekin Elizondora bueltatu zen, eta bertan hasi zen modu jarraituagoan margotzen.

Esan daiteke Marinek betidanik margolari ibilbidea garatu duela, lengoia propioa eta formen, koloreen, materialen eta tekniken menderatzen handiarekin, baina 17 urtetan hasi zen Elizondora zerbitzu militarra egitera etorri zen Ismael Fidalgorekin klaseak ematen. 1952an Donostiara bueltatzen da *Floreros y Bodegones* deituriko lehiaketan parte hartzera, zeinetan aipamen berezi bat jasotzen duen. Gainera, bere lehenengo erakusketa kolektiboa izan zen. 2 urte beranduago Madrilera joan zen arte ederretan formazioa jasotzera, etorkizunean erreferente eta lagun on izango zuen Menchu Gal margolariak aholkatuta.

1956an Iruñeako García Castañón de la Caja de Ahorros Municipal gelan lehenengo erakusketa indibidualean hartu zuen parte, eta hortik aurrera hainbat erakusketa egin zituen Iruñea, Donostia, Madril, Bilbo, Baiona eta Baztanen.

Artista honek pinturari egindako ekarpena paisaiaren generoetan, ohituren margolanetan, hildako naturan eta erretratuan zentratzen da. Natura hondatzeaz zeukan kezka hori jakinda, bere obrak baztandarrok kontserbatu behar dugun edertasun hori irudikatzearen saiakera izan daitezke. Horietako bat da *Elizondoko merkatua* obra, zeina bere produkzioko atal nagusi gisa igarria izan baitzen Carmen Alegría biografoari esker.

Baztango naturak Ana harrapatu zuen margolaritzan hasi zenetik. Beretzat Baztan margotzea arnastea bezala zen, beharrezkoa. Horregatik, zentzumenentzat erakargarriak ziren koadro multzo bat pintatzen zuen, bere tonalitate bereziak nabarmen islatuz, adierazi nahi zuena zer zen ongi zekielerik. Ikuspuntu metodologikotik, paisaia marrazteko modua ez zen erabat ohitura airelibristara ematen, obra bat hasi eta toki berean bukatzearen ideiarekin barruan. Paisaia naturalaren lehen behaketak egiten zituen, konposizioari, balio atmosferikoari, argiari eta koloreari dagokionez, eta ondoren bere estudioan bukatzen zuen obra, bakarrik. Berak zioenez bere sormenaren une esanguratsuena zen.

Artistak paisaia idealizatzen zuen egungo zibilizazioaren arriskutik babesteko, eta horregatik maitasunez hurbiltzen zitzaion, kolorearen tonuan kontrastatuz eta argitasun ukituekin. Baztango paisaia margotzea gustatzen bazitzaion ere, ezin da Baztango paisajista bezala sailkatu, beste lurralde asko ere interesatu baitzaizkio: Andaluzia, Kantabria, Mantxa, Errioxa, Euskal Herria eta Nafarroaren gainerako lurraldeak ere.

Erabiltzen zituen beste gaietako bat bodegoiak ziren, eta Picassoren eragina aurkitzen zen hauetan. Bodegoietan jateko gauzak, ontziak eta tresnak agertzen dira, baita batzuetan loreak ere. 86ean izan zen benetan bere bodegoiak eta paisaiak lutoz bete ziren momentua, une horretan 22 urteko bere alababitxia zendu baitzen, eta 1993an aldiz, bere koinatu eta anaia zaharrena. Anak bere anaiari bodegoi bat eskeini zion, *Flores junto al violín de Gregorio*, non bere galeraren mina gordetzen zen. Gerora, obra hori Nafarroako Museoak erosi zuen.

Ana Mari Marinen obrak



Gaiekin jarraituz natura hilak topatuko ditugu, sakonean paisaia txikiak zirenak, loreak eta sortak ez baitziren falta. Margolan hauekin sentitzera gonbidatzen zizun, eta ez hainbeste obraren analisisira. Askotan natura askea bultzatzeko erabiltzen zuen gaia zen, natura zein garrantzitsua den konturatzeko erabiltzen zituenak. Horrekin argi geratzen da Marinentzat zenbateraino zen natura bere obrako protagonista funtsezkoena. Erretratuak egitea ere Marinek asko gustuko zuen, motibazio hutsagatik margotzen baitzituen, eta inoiz ez enkarguz. Gainera, erretratueta pertsonaiak bere bizitza pertsonalean garrantzitsuak izan zirenak ziren: Menchu Gal, amona Elisa Arin, Oteiza...

Bestalde, bere obretako koloreek garrantzia handia zeukaten, eta hauen bidez sentimenduak adierazten zituen. Van Goghek adierazi zuen bezala koloreak bere baitako zerbait adierazten du. Baztango paisaiaren kasuan kolore berdea, hori-morea eta gorria erabiltzen zituen udazken beroa adierazteko, gehien gustuko zuen urtaroa izanik. Aipatutako koloreez gain ere kolore gehiago gustuko zituen, malba kolorea esaterako, gehienetan falta zuenarekin erlazionatzen zuena. Berde kolorea, aldiz, epelagoak diren koloreekin trantsizioa egiteko erabiltzen zuen edota horia, Nafarroako koltza eta ekilore landak irudikatzeko edo Mantxako eremu zabalak irudikatzeko ere. Urdina, neurriz erabiltzeko kolorea zen beretzat, bereziki zeruetan. Kolore masa bat erabiltzen bazuen ez zuen nahi zuen mugimendua lortzen. Urdina grisarekin hoztua nahiago zuen, lasaitasun aire bat ematen ziolako, eta Baztango zeruan berezkoa dena. Hala ere ez zuen urdin bizia ukatzen kasu batzuetan.

Teknikari dagokionez, gehien erabiltzen zuena olioa zen, eta bere adierazpenaren arabera pintzelari birak ematen zizkion, dibertigarria eta xelebrea iruditzen zitzaion jestua zela esanez. Aldiz, paperean egindako akuarelak ere bazeuzkan, arinagoak eta gorputzgabeak, baina kritikoen produktio onena bezala baloratu zituztenak. Arreta deitzen zuten bitxiagoak zirelako, artista plastikoek ez ziotelako teknika horri maiz heltzen.

Bere ibilbide artistikoarekin lotuta, txiki-txikitatik marrazten aritu bazen ere 1960an margolaritzatik arreta galdu zuen, bere aitaren heriotzaren eraginez. Margotzen jarritzen bazuen ere, erakusketak eten zituen une bakarra izan zen hori, eta etxekoak aurrera ateratzeko asmoz Iberiako airelineetan lanean hasi zen. Lan horrek, aldiz, aukera eman zion beste herrialdeetara bidai anitzak egiteko eta kultura eta herrialde ezberdinak ezagutzeko. Horrez gain, 1967an Baztanen kargu publikoetara ere aurkeztu zen, ez baitzuen jasaten paisaia naturalak nola suntsitzen ari ziren ikustea, eta bertan jardun zuen lehenengo emakumea ere izan zen. Horrez gain, bertako ohiturak berreskuratzen lagundu eta orduko gizarte lasai eta ekimenik gabeko batean kulturak aurrera egin zezan ahalegindu zen. Gainera, 1975etik 1977ra Elizondoko alkatea izan zen. Ez da uste feminismoa hitza artistaren hiztegian dagoenik, ezta bere ekintza berezi batzuez kontziente izan denik ere, baina Baztango kargu publikoetan jardun zuen lehen emakumea izateak edota bere amarekin batera Elizondon galtzak erabiltzen lehenengo emakumea izateak zer pentsa badauka.

Baztan bailarako margolarien artean erreferenteetako bat izan da Marin, eta 2020an zendu zen arte Baztan bailara babestearen alde borrokatu izan du bere obra askoren bitartez. Guztiaren gainetik pintura sentimenduen transmisioa izan da beretzat.

ADINAREN ARABERAKO IKUSPUNTU POSIBLEAK

Ana Mendieta eta Ana Mari Marin artisten ikerketa adin guzietan praktikan jarri daiteke, adin bakoitzarentzat egokitzen diren elementu eta helburu ezberdinen baitan. Hauen bidez, gai anitz landu ditzazkegu: naturarekin eta honen elementuekin harremantzen hastea eta hauekiko ezagutza jasotzea, zuhaitz, fruitu edota loreen izenak ezagutzea, haurrak sorkuntza prozesuan murgiltzea inguruan ditugun elementu ezberdinak erabiliz, natura babestearen garrantzia eta honen iraupenaren beharra ezagutzea... alderdi guzti hauek Haur Hezkuntzatik hasita landu ditzazkegu, helburu bakoitza adin bakoitzera egokituz.

Bestalde, Haur Hezkuntzara erabat egokitzen ez den arren, emakume izateagatik gutxietsiak diren bi emakume artista ezagutarazi eta hauen inguruko informazioa jasotzea lortuko da, eta emakumeei ere historian eskeini zaien lekua eta hauek izandako garrantziaz hausnartuko da.



Naturako elementu ezberdinak

ADIN EZBERDINETAKO HELBURUAK:

HELBURU NAGUSIAK:

- Baztango eskoletan artearen alorra bultzatzea eta bertako kultura ezagutaraziz honen interesa sustatzea, galera ekiditeko.
- Kultura txikikoak edo ezberdinekoak diren artisten obrak ezagutzera ematea.
- Haien ingurune naturala, kulturala eta soziala esploratzea. Artearen bitartez naturarekiko errespetua erakustea eta honen biziraupena zein garrantzitsua den jakinaraztea etorkizunera begira.
- Besteekin harremantzea eta elkarrekintzan jardutea.
- Artearekin lotutako sormena garatzea.
- Adierazteko modu ezberdinekin komunikatzeko gaitasuna garatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- *Land art* mugimenduaren bidez artearen mundura gerturatzea.
- Ingurune naturaleko elementuak behatu eta ezagutzea, inguruan daukatenarekiko jakin-mina piztuz.
- Elementuen bidez koloreak, formak, tamainak edota ehundurak ezagutzen eta identifikatzen joatea.
- Naturarekin kontaktuan egoteak eta hura manipulatzeko gozamina eragitea.
- Motrizitate fina eta gordina lantzea.
- Norbere sentimenduak paperean adierazten eta bakoitzaren identitatea errespetatzen ikastea

JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera gauzatzeko, Haur Hezkuntzako 4-5 urteko ikasleengana joko dugu. Haur Hezkuntzako bigarren ziklora bideratuta dago gehienbat jarduera, adin horretan haurrak naturarekin asko harremantzen hasten direlako, herriko kaleetan barrena ibiltzen, parkeetara maizago joaten... Gainera, natura haur hezkuntzatik lantzea oso garrantzitsua da, etapa horretan hasten baitira ingurunearekin harremantzen, hau da, ingurunea behatzen, manipulatzeko eta esploratzeko. Gainera, garrantzitsua iruditu zait naturarekin harremanetan jartzeko ohiko bideez gain beste bide ezberdinak eskaintzea, artearen bidea esaterako. Horrez gain, natura eta bere elementuak behatzea, hauekiko ezagutza jasotzea, manipulazioaren bidea erabiltzea eta esplorazioarekin gozatzea lortu nahi izan da.

Bestalde, jarduera lantzeko etapa egokia iruditu zait, Haur Hezkuntzako lehenengo ziklotik artearen erabilera eta honen lanketa oso garrantzitsua baita, haurren garapenean eragina duelako, eta artea gehienbat marrazketarekin lotzen ohi dugun arren, artearen alorra oso zabala da. Horregatik artea lantzeko *land art* deitutako joera ezberdina ezagutarazi nahi izan dut, egungo joera ohikoetatik at dagoelako.

Nire helburua natura haurrengana hurbiltzea izan da, eta honen bidez askatasuna bilatu eta sentimenduen adierazpena landu, behatuz, manipulatzeko eta esploratzeko. Natura eta artea bezalako bi alor hauen arteko lotura ezartzea ere interesgarria iruditu zait, egungo eskoletan biak lantzen saiatzen diren arren, ez baitira biak erlazionatzen.

Jarduera hasi aurreko egunean, testuinguruan sartzeko, gelan gaudela *land art* joera aintzat hartzen duten irudi ezberdinak ikusiko ditugu denok elkarrekin, eta artea sortzeko joera horren ideia garrantzitsuenak azalduko dizkiegu haurrei. Horrela, haurrak ezagutza jasotzen joango dira, eta arte mota horrekin sortutako obra ezberdinak behatuko dituzte. Unitate didaktikoa aurrera eramateko lagungarria izan den Ana Mendietaren 4 obra erakutsiko dira, baita Alice Aycock artistaren beste 3 ere, zeinak haien obrak egiteko *land art* joeraz baliatzen diren bi emakumezko artista diren. Bi artista hauen obrak ezagutzeak balioko die haurrei artearen ideia horrekin harremantzen hasteko eta, gehienbat, mundu honetan pintatzen dugunarekin eta honentzako zein onuragarriak edota kaltegarriak izan gaitezkeenaren inguruan hausnartzeko.

Hurrengo egunean, jarduerarekin hasteko, aurreko egunean ikusitakoa gogoratuko dugu, nola artista batzuek naturarekin harremanetan sortzen zituzten obrak. Horren ostean, *land art* joera hori aintzat hartuz beste haur batzuek egindako 5 irudi ikusiko ditugu interneten, haurrek ideien bat hartu dezaten nahi izanez gero. Beste haurrek egindako lanak ikusita kanpora aterako gara, eta bertan gaudela haurrei aurkitzen dituzten naturako elementu ezberdinak biltzen joan daitezten esango diegu: harriak, belarra, adarrak, hostoak, loreak, gaztainak... aurkitzen duten eta nahi duten guztia. Elementu ezberdinak bildu ondoren, aurretik gelan erakutsi dizkiegun irudien gisako bat egiteko eskatuko diegu, nahi duten elementuekin eta nahi duten irudia errepresentatuz, bakoitzak bere pentsamenduen barruan sakontzea eta horren arabera sortzea baita gakoa. Hau da, naturako elementuak erabiliz haurrek irudi bat sortu beharko dute lurrian. Horrez gain, elkarren artean elementuak partekatu ditzazkete edota irudia binaka osatu ere, haurrek elkarrekintzan jardutea oso garrantzitsua baita.

Irakasleok bitartean, irudiak egiten ari direnean eta ostean argazkiak aterako dituzte, eta kartulinazko argazki-albuma sortuko da gero. Albuma egiteko kolore ezberdinetako kartulina txikiak hartuko ditugu, eta inprimatu edo errebelatutako argazkiak itsatsiko ditugu hauean. Geratzen diren kartulina zatietan marrazki bakoitza norekin egin duen idatzi daiteke, edo bestelako marrazkiak egin ditzazkete haurrek ere. Kartulina guztiak prest egonda, denetan ezkerreko aldean 3 zulo txiki egingo dizkiegu eta sokekin denak lotuko ditugu, liburuxka bat sortuz. Azkenik, liburuaren portada marraztu eta prest!

MATERIALAK

JARDUERARAKO MATERIALA:

- Ordenagailua eta interneta
- Naturako elementuak

ALBUMA EGITEKO:

- Kolore ezberdinetako kartulinarak
- Argazkiak
- Kola
- Errotulagailluak
- Kartulinetan zuloak egiteko tresna
- Sokak

BIBLIOGRAFIA

- A. (2015eko otsailaren 20a). *Siluetas series 1973-78* [Mezua blog batean]. Hemendik berreskuratua: <https://blogs.uoregon.edu/anamendieta/2015/02/20/siluetas-series-1973-78/>

"Blog hau oso interesgarria da Ana Mendieta-ren obra ezberdinak agertzeaz gain, ibilbide artistikoan zehar bere arteak edukitako fase ezberdinak zehazki adierazten direlako. Erabilgarria da, beraz, bere obraren atzean dagoen ideia zein den jakiteko eta, horrela, obra hobeto ulertzeko. Gainera, artea egiteko ohiko moduak baztertzen ditu beste arte mota ezberdin eta erakargarriak eskeiniz".

- De Retana, M. (2003). *Ana Marín: su vida, su Baztán y su universo pictórico*. La Gran Enciclopedia Vasca.

"Lehen aipatu bezala, Marinen inguruko informazioa bilatzeko zailtasunak egon daitezkeen arren, liburu honek artistari buruzko informazio anitza eskeintzen du. Gainera, artistaren obra bere marrazkilari ibilbidearen informazioa jasotzeko balio izan dit, hau gabe ez bainuen informazio nahikorik lortu izanen".

- López Fernández-Cao, M. (2009). *Principios. Educación, creación e igualdad*. Colección *Posibilidades de ser a través del arte*. Eneida

"Gida hau baliagarria izan da eskolan artea zergatik landu eta nola landu jakiteko. Horrez gain, artea, sorkuntza edota ekitatea lantzearen garrantzia aipatzen da, hezkuntzan diharduten irakasleak hezkidetzeta eta artearen alorrean murgiltzen hasteko beharrezko ezagutzak eskainiz. Hezkidetzatik abiatutako hezkuntza artistikoa lantzeko erabilgarria den gida da".

- López Fernández-Cao, M. (2009). *Imaginarse el mundo, imaginarse el fin del mundo. Hildegarda de Bingen, Ende*. Colección *Posibilidades de ser a través del arte*. Eneida.

"Emakumezkoak diren bi artista oinarri hartuz, hurrekin artea lantzeko aukera eskeintzen du gida honek. Egun hezkuntzan ikasi beharreko gaiak, erakusten diren ohiko moduetatik haratago joan eta beste bide berrien erabilera bultzatzeko balio du, artearen bidezko ezagutza, esaterako. Artearen bidez ikasten dugun heinean gozatu dezakegula erakusten digu".

- Torres, S. (d.g.). *Ana Mendieta* [Mezua blog batean]. Hemendik berreskuratua: <https://womanarthouse.com/2018/03/11/ana-mendieta/>

"Ana Mendieta inguruko informazioa eskeintzen duen bloga da, informazioaz gain berak egindako obra batzuk ere ageri direlarik. Bere gorputzaren eta naturaren arteko lotura ezartzearen ideien inguruan mintzo da, baita bere obra batzuen zergatiaren inguruan ere. Bere obra garrantzitsuenak ezagutzeko baliagarria da".

- Zubiaurre, F. J. (2013ko urria). *La pintura de Ana Marín. Síntesis y dirección de una trayectoria* [Mezua blog batean]. Hemendik berreskuratua: <https://www.zubiaurcarreno.com/la-pintura-ana-marin-sintesis-direccion-una-trayectoria/>

"Marinen informazioa eskeintzen digun bloga da. Bertan eskeintzen den informazioa goian aipatutako Martín de Retanak sortutako liburutik hartua dagoen arren, Marinen bizitzaren eta bere artista ibilbidearen inguruko laburpen egokia da".

GLOSARIOA

LAND ART:

Land art izeneko arte-korrontea zuzenean paisaian egiten den artea da, eta lurra bera moldatu edo paisaia aldatzen da naturan dauden elementuak erabiliz. *Land art* edo *earthwork* 1960ko eta 1970eko hamarkadetan eman zen arte-kontzeptual mugimenduaren parte izan zen. Talde aintzindari batek sortu zuen: inguru naturalak, artea egiteko modu desberdinak eta arte komertziala saihesteko moduak ikertzen zituzten, besteak beste.

PERFORMANCE:

Ekintza artistikoa da, probokatzeko asmoz sortutako espektakulu edo ekintza. 1970eko hamarkadan adierazpen artistikoko baliabide gisa onartua izan zena, eta bat-batekotasuna eta ikuslearekin konexio zuzena dira honen oinarri funtsezkoenak.

TRANSKULTURAL:

Kultura batek gizabanakoan eta honen gizartean duen eragina, eta kultura ezberdinak elkartzen direnean eragin horrek dituen ondorioak hartzen ditu.

ZAPOTECA:

Kolonaurreko garaian, zapotecak Mesoamerikako zibilizazio garrantzitsuenetako bat izan ziren, egun Mexikoko Oaxaca estatua den eremuan bizi zirenak. Jatorria K.a 250 eta 800eko denboraldikoa zela pentsatzen da, eta Itsmotik Acapulcoraino zabaldu zen, herrialdean 2500 urtez bizi izanez gutxi gora behera. Zibilizazio horren kulturaren garrantzia hain handia izan zen hubileko kultura askotan eragina izan zuela, maien, azteken eta teotihuacanen kulturari esaterako.



9.4. Gidaren aurkezpenaren transkripzioa

Gidaren aurkezpena egiteko maiatzaren 26an Elizondoko Baztan Ikastolara hurbildu nintzen goizeko 8:15etan, bertan geratu bainintzen elkarrizketan parte hartuko zuten irakasleekin. Elkarrizketa hau 8:30ak inguru garatu zen eta denetara 5 irakaslek hartu zuten parte, ikastolako Haur Hezkuntza zikloko irakasleak denak. Honako hau izan zen elkarrizketa:

- **Elkarrizketatzailea:** “Bueno, egunon”.
- **Irakasleak:** “Egunon”.
- **Elkarrizketatzailea:** “Ni Amaia naiz. Naiz Gasteizen Haur Hezkuntza ikasten ai den ikasle bat eta aurten tokatu zait, gradue amaitzeko itia gradu amaierako lana, eta gradu amaierako lanan gaia da artea eta generoa ikuspegi feministak hezkuntzan. Eta, hortako, aurrera eramateko gradu amaierako lan hau sortu dut gida bat dagona zehazki Baztango haur eskoletara bideratue, adierazten dutena nola lantzen ahal duten artea gidetan. Eta, bueno, gidakin hasi baino lehen, lehenbiziko gustatuko zitzaiten galdera batzuk itia eta, bueno, galdera, zuek zuen erantzunak jasotzia, eta, bueno dire 3 galdera, eta dire hezkidetzan edo genero berdintasunaren inguruen. Orduen, lehenengo galdera izango zen eskolan hezkidetzan edo genero berdintasuna lantzea garrantzitsua dela uste duzue?”.
- **Irakasleak:** “Bai (barreak).
- **Irakaslea A:** Ezinbertzekoa bai”.
- **Elkarrizketatzailea:** “Nahi badu norbaitek erantzun banaka edo nahi duzuen bezala”.
- **Irakaslea A:** “Nik uste dut denek iritzie dugule”.
- **Irakaslea B:** “Hoixe bai, eta gaur egun hoixe, lantzen dugu erebai hementxe ikastolan”.
- **Irakaslea C:** “Nik uste normaltasunez lantzen dugula gainera, eztela justo hortan zentratzen, ba, gure egunerokoa haur guziek berdin tratatzea dela, eta gero ere bai beraiek kartzen tuzten gauzak etxetikan igual hoiek lantzea erebai ez? Kasu berezik igual ez? Baina”.
- **Elkarrizketatzailea:** “Bale, eta hezkuntza artistikoa bultzatzea? Garrantzitsua iruditzen zaizue?”.
- **Irakasleak:** “Bai”.
- **Elkarrizketatzailea:** “Eta, hortik abiatuta uste duzue hemen, eskola honetan artearen alorra lantzen dela? Edo nahiko lantzen dela?”.
- **Irakaslea A:** “Bai bai, pilla bat ez?”.
- **Irakaslea C:** “Bai, pilla bat”.

- **Irakaslea A:** “Zirkulazio librea dugu guk, gela bakoitzean gune desberdinek daude eta, adibidez, hau da, bueno gaur ez dagola patue baino hau da pintzelan gunea edo tenperata gunea, eta gero hor bertze gelan dago pixket e, sormena, hoi da, sortzea ez? gauzak sortzea”.
- **Irakaslea C:** “Bai”.
- **Irakaslea A:** “Eta beheitiko geletan ia pues”.
- **Irakaslea D:** “Bai, material desberdinak eskeintzen zaizkie, beren eskura dute momentu oro, eta”.
- **Irakaslea A:** “Eta nahi dutenean gaten dire ez?”
- **Irakaslea E:** “Batez e, zehatzak ez diren, hori ez? materialak eskeintzen tugu, ta ordun ba pixket sormena lantzeko ta”.
- **Irakaslea C:** “Bai, ez dago eredurik”.
- **Irakaslea E:** “Hori da”.
- **Irakaslea C:** “Beraien baitatik atetzen da ideia ta beraiek eitten dute, ta elkarlanean eitten dute, eta, e, prozesu hori antziñera eramaiteko gainera gaur hasten direna bihar jarraitzenal dute, e”.
- **Irakasleak:** “Bai” (barreak).
- **Elkarrizketatzailea:** “Bale, ba, bueno galderak erantzunda ia pasako naiz nere gidara eta, azalduko datzuet pixket gañetik nere gidan helburuak eta zein izan diren, ba, atal garrantzitsuenak eta, e, baino gehio, gero gehiago interesatzen zait nik zuei gida azaltzea baino jasotzia zuen iritzie gidakiko. Orduen, bueno, lehenik eta behin gida hau sortzeko, e, oinarri hartu dut, e, Marián López Fernández Cao-n *Posibilidades de ser a través del arte* bilduma, eta, bueno ez badakizue nor den da irakasle, katedratiko eta ikerlari bat eta bueno, hainbat gai aztertu batu ere hoietako, lantzen duen gai bat da artea eta generoa, eta, bueno aipatu duten bilduma dago honen gisako gidaz osatue eta gida, bueno, dagola hezkuntzara bideratue, eta gida bakoitzak lantzen du gai bat eta, pues, lantzen du emakumezko eta, kasu batzuetan, gizonezko autore bat edo bi autore. Bueno, eta, nere gidakin zentratute nik aukeratu duten gaia izan da, e, natura, naturaren gaia, naturaren bidez ikasi, sortu eta gozatu, eta aukeratu dituzten autoreak izan dira Ana Mari Marin, dela Baztango artista bat eta Ana Mendieta, dela artista latinoamerikarra. Eta, bueno, lehenengo aztertu dutena emen da, pues, zertaz aukeratu duten gai hau eta zertaz aukeratu dituzten autore hauek ta bueno pues, arrazoi nagusia izan da, e, pues iruditu zaitela, e, artea eta naturarekiko lotura hoi, Haur Hezkuntzatik, e, bultzatu behar dela eta, pues, adierazi duten bezala naturaren bidez ikasteaz gain sortu eta gozatu dezaketelako, eta, e, aukeratu dituzten bi artistak izan dire biek, e, natura lantzen dutelako ta naturarekin bilatzen dutelako askatasuna, eta ere, e, arras interesgarrie iruditu zaitena izan da

biek lantzen dutela natura bi ikuspuntu arras ezberdinetatik, adibidez, Ana Mari Marinek, e, iten du pintatu natura, hau da, paisaiak eta pintatzen ditu, eta, e, Ana Mendietak, bueno, hemen bada bere obra baten argazkie, bere obrak egiteko baliatzen da edo erabiltzen ditu naturako elementuak. Ta gero azaltzen dut nor zen bakotxa, bere ibilbide artistikoa, ta, e, teknikak, obra baten bat eta obra baten baten argazkie ere, eta, bueno gero ia, adinaren araberako ikuspuntu posibleak, pues, artista hauek eta gai hau landu ahal dela, pues, adin ezberdinetan, pues adin ezberdinetan bueno, helburuak izango direla ezberdinak eta lantzeko moduek ere ezberdinak, eta helburuetan, gehiago helburu hauek daude zentratuek Haur Hezkuntzara. Eta, gero ia akitzeko, e, proposatzen dut jarduera bat adierazten dutena nola landu daitekeen artea eta natura hurrekin, eta bueno jardueraren garapena eta, bueno, materialak erebai. Eta, jarduera orokorrean da, e, Ana Mendietan *land art* arte iteko moduarekin lotue, dela, pues, zuzenian paisaian iten den artea eta hortako proposatzen dut haurrak atratzea kanpora, bilatzea naturako elementu ezberdinak biltzea eta ia naturako elementu ezberdinak bildute osatu bar dute hoiek nahi duten irudi bat. Eta, hoi izan da gidan guzie, eta orai gustatuko zaiten orai pixket zuen iritzia, kusten duzuen erabilgarrie, edo interesgarrie, edo zer”.

- **Irakasleak:** “Bai”.
- **Irakaslea D:** “Bai guk ez? egiten duguna pixko bat, zirkulazio autonomoetan aitzen gara, gero hezkidetza ere hor sartua dugu, ba guri hau aurten justo Ana Mari Marin landu dugu ere bai”.
- **Irakasleak:** “Bai”.
- **Irakaslea D:** “Hilabetero lantzen dugu emakume erreferente bat hezkidetza dela eta, ez? Ba, ederki. Eta gero naturako material manipulatio hoiek ibiltzen dituzte mosaikoak egiteko, e”.
- **Irakaslea C:** “Mandalak”.
- **Irakaslea D:** “Mandalak”.
- **Irakaslea A:** “Hoixe”.
- **Irakaslea C:** “Eta kanpun ere, osea deus gidatu gabe beraiek etengabe egiten dute, adarrak biltzen ttuzte, multzokatzen ttuzte bai”.
- **Irakaslea D:** “Eta egokie iruditzen zait ere igual Haur Hezkuntzan hori behar da, material manipulatioekin egin eta ez papera eta, eta hor bakoitzak egingo du, barrenean duen hori adieraziko du ederki edo, bakoitza bere modura, e, polita”.
- **Irakaslea C:** “Bai, interesgarria”.
- **Irakaslea A:** “Neri iruditzen zait zuk patu duzune ez? Kanpora atratzian hoi arras ongi dago ze guk parkean ere badute aukera ez? ibiltzeko naturako gauze hoiekin, baino aunitz eskoletan ez dute”.

- **Irakaslea C:** "Hoi da".
- **Irakaslea A:** "Aukera hoi ez da".
- **Irakaslea A:** "Eta iruditzen zait neri behinpin arras beharrezkoa".
- **Irakasleak:** "Bai".
- **Irakaslea A:** "Kanpora atra ta, ta bizitu".
- **Irakaslea B:** "Hoixe, ta naturai erebai garrantzia hoi man ez?".
- **Irakasleak:** "Bai".
- **Irakaslea E:** "Ta ikustea ez, naturako elementuekin ere sortzeala artea ta, bai".
- **Irakaslea C:** "Bai ta gero, bueno, zaintza baloreak erebai e".
- **Irakaslea E:** "Hori da".
- **Irakaslea C:** "Elementu hoiekiko tratua, bai, baloria".
- **Elkarrizketatzailea:** "Ta orduen, e, adibidez uste duzue holako gehiago beharko zirela edo, bueno badaudela?"
- **Irakaslea C:** "Ez dakit badauden edo ez baino (barreak) baino niri hori guztiz egokia iruditzen zait".
- **Irakasleak:** "Bai".
- **Irakaslea C:** "Iruditzen zaigu".
- **Irakaslea A:** "Guk gauze hoiek bai lantzen ditugule, igual guretako ezta jaus berrie edo ez?"
- **Irakaslea:** "Bai".
- **Irakaslea A:** "Dugu nahiko egunerokoan sartue baino bai eskola aunitzetan ta nik uste dut dela nahiko".
- **Irakasleak:** "Beharrezkoa".
- **Irakaslea A:** "Pues berrie edo izango da nahiko bai".
- **Irakaslea D:** "Artea egiten dutela bai, materiala baino beti material ez naturako materiala, bertze materialakin eta".
- **Irakaslea A:** "Edo zehatza ta helburu batera ez? (...)".
- **Irakaslea A:** "Hemen da arras sortzailea baten ingo du modu batera bertziak bertzera bertzia, eztakit, da arras, urte batzuk eramaten ditugu hola eta egie erran".
- **Irakasleak:** "Bai".
- **Irakaslea A:** "Arras arras gustora".
- **Irakaslea C:** "Bai, adibidez".
- **Irakaslea B:** "Da azken".
- **Irakaslea D:** "Eta haurrak ere sentitzen dire baloratuak, e, balio dutela, e, denei eredu berdina patu ezgero bakoitzak baditugu gure gabeziak eta gure indargunean ez?"
- **Irakaslea C:** "Hoixe"

- **Irakaslea D:** "Edo gure".
- **Irakaslea E:** "Bai".
- **Irakaslea D:** "Ahulgune puntuak eta bat sentitzenal da motrizitate ez duelako oraindik erabat garatua (...) pintzel handi txiki honekin ez dut trazoa egitenal, baino hor uzten baduzu, e, bai nik uste dut".
- **Irakaslea C:** "Bai, bakoitzak eitten du bere modura".
- **Irakaslea D:** "E, errespetatzen duzu bakoitzari bere ritmoa, e".
- **Irakaslea C:** "Bai bai eta gainera ez duzu behartzen ere, ez badute nahi ez dute egiten".
- **Irakaslea D:** "Hori da".
- **Irakaslea C:** "Nahi duenak egiten du".
- **Elkarrizketatzailea:** "Bale, pues bueno, pues hauxe izan da dena ta eskermil aunitz".
- **Irakasleak:** "Zuri tortziagatik".